

# ASTELEHENEKO Goienkaria

2007ko otsailaren 19a > Astelehena > III. urtea > 134. zenbakia > Euro bat

www.goiena.net

"Apirilean lehen 'bizilagunak' etorriko dira Garaia gunera"

Andoni Gartzia  
Garaia > 06



## EUSKAL PRESOK

Presoekin bat eginez, ordubeteko lanuztea deitu du Etxeratek > 05

## LAN SEGURTASUNA

Laneko segurtasunaren gainean jardungo dute Arcelorren > 05

## ARRASATEKO ERASOA

Erasotutako La Caixaren bulegoak 250.000 euroko galerak ditu > 10

## KROSA

Yerai Varela Espainiako txapelketarako sailkatu da > 21



BRASIL Aretxabaletako desfilean ikusteko aukera egon zen, tartean, brasildar talde bat. JOSETXO ARANTZABAL

# G2a

JAIK > ARATUSTEAK

## Umore ona, kolorea eta kritika soziala izan dira nagusi Aratuste-asteburuan, eguraldi txarraren gainera

Neguko eguraldia agertu da Aratusteetan. Euri zaparrada, haize eta hotzari aurre egin eta moztarok soinean jantzita kalean ibili da jendea. Aretxabaletako desfile ikusgarrian, denetarik egon zen, baina moztar onenaren saria Txibisto dantzalekuaren atea berriro zabaltu zituen Zelabaixeta koadrilak irabazi zuen. Arrasaten, Auzitegi Nazionalako kide jantzita, saria A8 txoke-autoei eman zieten gartetxeok. Moztar zirikatzaile asko egon ziren: desfile militarrez jantzita, batzuk; Malaya Operazioa aintzat hartzen zutenak, beste batzuk... > 23-24

NEKAZARITZA > TXAKOLINA

## Getariako izendapena izango dute gurekoek

### LEGE BARRUAN

Ibarreko ekoizleak pozik daude, Getariako izendapenean sartzeak euren egoera legeztatuko duelako

### GIPUZKOA

Euren eskaera Gipuzkoako Txakolina izendapena da, eta hori lortzeko lanean jarraituko dutela esan dute

Getariako Txakolina izendapen ofiziala Gipuzkoako beste ekoizle batzuetara hedatuko da; hala jakinarazi zuten egunean Jaurlaritzak, Aldundiak eta izendapenak. Horrek esan nahi du, datorren urte-tik aurrera, Debagoienean merkaturatzeko ekoizten duten hiru txakolin egileak legez kanpoko egoeratik irtengo direla.

Gozoarekin bat, ordea, zapora garratza utzi die neurriak gureko ekoizleei: Gipuzkoako Txakolina izendapena nahi dute. > 04

### AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-05

Elkarrizketa > 06

Iritzia > 08

Herriak > 09-14

Kirola > 15-22

Kultura > 23-27

Sailkatuak > 28

Irrati-Telebista eta

Hitzorduak > 29

Berri-zakua > 30-31

## Barrualdean, Arrasate eskubaloi taldeen posterra



# UGARTE

AROTEGIA-ALTZARIAK



Arotz lanak orokorrean • Horma armairuak • Altxariak • Leihoak • Ateak



ALTZARI DENDA

Ikerleku zeharbidea • BERGARA

Tel.: 943 03 46 30

ERAKUSKETA ETA TAILERRA

San Juan 1A • BERGARA

Tel.: 943 76 54 91 Faxa: 943 76 08 04

ESKALEAK &gt; ETXERIK GABE KALEAN BIZI DIRENENDAKO LAGUNTZA

# Eskekoak, errezeloz begiratzeko ditugun gure bizilagun behartuak

**PROTOKOLOA** Etxerik gabeko jendea, kalean bizi direnak Udaleko Gizarte Zerbitzuetara gerturatzeko egin dute Arrasateko Udalean protokoloa

**JANARIA ETA BIDAIA** Ibarreko udal gehienek inguruko hiriburuera joan daitezzen bidaia txartela ordaintzen diete eskekoari eta, batzuek, jana eman ere

**LAGUNTZA** Eliza inguruko boluntarioek eta Caritasekoek ere eskean dabilen jendeari laguntza ematen diete, gurean aterpetxerik ez dago eta

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Haur, gazte zein helduak dira; mila izarreko hotelean, kalean, egiten dute lo; zorte pixka bat izanez gero, arkupe, pabiloi edo kutxazainetan ere aurkitzen dute aterpea. Hotzari aurre egiteko, kartoiak, norbaitek emandako mantak... erabiltzen dituzte eta, lanik ezean, edo lana aurkitu artean, eskean egiten diote aurre eguneroko bizimoduari. Jendeak emandako limosnetatik bizi dira.

Eskaleak dira, eta horiek artatzeko protokoloa jarri du abian Arrasateko Udalak. Horren bidez, udaltzainak eta udaleko teknikariak joango dira haiengana, dituzten aukerak azaltzeko eta Gizarte Zerbitzuetara bideratzeko.

Arrasateko Udaleko Gizarte Zerbitzuetako teknikari Maite Aizpirik azaldu digunez, "etxerik gabeko jendea, kalean bizi direnak, denak ez dira iristen Gizarte Zerbitzuetara. Protokoloa egin

dugu guregana heldu ahal izateko eta, diagnostiko bat egin ostean, euren beharrezanetara egokitutako irtenbide bat emateko".

**BIDAIA TXARTELA ETA JATEKOA**

Izan ere, orain arte, eskekoak Udalera laguntza eske joanez gero, inguruko hiriburuera aterpetxeetara bideratzen zituzten, horretarako autobuserako txartela emanaz. Bide hori, ordea, ez zuen Arrasateko Udalak baka-

rrik jarraitzen; ibarreko beste herri batzuetan ere, bidaia txartela ordaintzen diete, Bergaran eta Aretxabaletan, hain zuzen.

Autobus txartela ez ezik, jatekoa ere ematen diete, baina urtean behin edo birritan baino ezin daitezke joan jateko txartelaren bila. Neurri hori daukate Aretxabaletan, Eskoriatzan, Elgetan, Antzuolan eta Bergaran. Bergaran, esaterako, Mizpirualde egoitzan ematen diete jatekoa.

Oñatin, Gizarte Zerbitzuek ez dute aparteko neurririk hartzen, baina eskekoak San Martin egoitzara joaten badira jateko bila, "etortzen diren guztiei ogitartekoa eta fruta ematen diegu. Aste honetan, esaterako, bakarra etorri da, baina joan zen asteen, zazpi. Hamar baino gehiago etortzea arraroa izaten da. Askotan, jende bera ibiltzen da. Egun batzuek hemen pasatzen dituzte; gero, bolada batean ez ditugu

## Etxean konposta egin nahi duzu?

Leintz Gatzagan, Eskoriatzan, Aretxabaletan, Arrasaten, Oñatin, Bergaran, Elgetan edo Antzuolan bizi zara?

**Debagoieneko Mankomunitateak etxean konposta egiteko bigarren kanpaina jarriko du martxan.**

Bizitza bakarreko etxe batean bizi bazara eta lorategia baduzu, edo lursail bat, edo antzerako zerbait, deitu ezazu Debagoieneko Mankomunitatera eta har ezazu parte.

**Eskaerak egiteko epea: otsailaren 21etik martxoaren 9ra, 8:00etatik 14:00etara.**

**Informazio gehiago nahi izan ez gero: Debagoieneko Mankomunitatea. Arrasate Pasealekua, 5 behea. 20500 Arrasate. Tel.: 943 79 33 99.**



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA



## Eskekoak hartzen zituzten Oñatin, Bidaurretan, baina istiluak medio utzi egin zioten aterpea emateari

## Kalean eskean egoteko gehienetan ez diete mugarik ipintzen

ikusten, baina berriz itzultzen dira. Hala ere, eurekin ez dauka harremanik", esan digu San Martineko atezainak.

### IBARREAN ATERPE ETXERIK EZ

Legeak dio 20.000 biztanletik gorako herrietan horrelako larrialdietarako baliabideak egon behar direla, baina gurean ez dago. Beraz, protokoloaren arabera, "emergentziazko etxebizitzak direlakoak, gehienak hiriburuetan daude. Beraz, gu saiatuko ginateke horrelako etxe baten edo gizarteratze zentro baten plaza bat lortzen eta hara bideratzen. Larrialdi egoera denean, eta momentuko atentzioa behar denean, Udalak emango lioke ostatu gau horretarako, eta hurrengo egunean baloratuko lukete Gizarte Zerbitzuek zer egin", esan digu Maite Aizpirik.

Oñatin, Bidaurretako komentuan, eskekoak hartzen zituzten eta bi gauetarako ostatu eman, baina, eskaleen arteko liskarrak eta borrorak medio, itxi egin



KALEAN Dendetako atean, zein kalean egoten dira eskean etxerik gabe bizi direnak. Egubakoitzean Arrasateko Portaloian zegoen eskean argazkiko gizona.

I.A.

zuten: "Eskekoek bi gau pasa zitzaketen, hiru oheko gela batean. Gero, iskanbilak sortzen ziren, batzuetan mozkortuta etortzen ziren... eta utzi egin genion eskekoek aterpe emateari. Orain, Ekuadorreko familia bat dago gurean, lana edo etxea aurkitu bitartean", esan digu Fermin Altube Bidaurretako fraideak.

Oñatiko udaltzainek esan digute Bidaurretako aterpea itxi zutenetik eskale gutxiago etortzen direla. "Herrian, kalean, eskean egoteko ez daukate mugarik. Etortzen direnak pixkanaka ezagutzen ditugu; beraz, ezezagunak badira, orduan ibiltzen gara argi. Martitzenetan zaintza egi-

ten dugu Caritasen. Ezin da orokortu, baina asko edanda etortzen dira, eta oldarkor; beraz, segurtasuna bermatu behar dugu".

### ELIZA ETA CARITAS, LAGUNTZAILE

Ohikoa da eskekoak elizetako atarietan ere ikustea. Izan ere, eskean datozenei laguntza ematea ezinbestekotzat jotzen dute elizak eta inguruko taldeek. Horregatik, Caritas elkarteak, Oñatin, Arrasaten eta Bergaran, etxerik gabekoei eta behartsuei laguntza ematen die. Besteak beste, jendeak emandako arropa, behar zehatzetarako dirua... jasotzen dituzte herri bakoitzean boluntarioen eskuetatik.

Juan Kruz Mendizabalek, Bergarako Santa Marina elizako apaizak, esan digunez, "oinarrian dagoen eztabaida da zenbateraino gai garen pertsona horien muineko arazoan sartzeko. Laguntza ematen diegu, eta saiatzen gara pertsonaren perfila eza gutzen. Hotz egunetan non lo egin ere arazoa da. Aurreko urtean, hotz egunetan, eliza ireki genuen lotarako, baina azken elurteetan ez da egin. Horrek eskatzen du boluntarioak egotea, eliza txukuntzea... beraz, ondo aztertu beharreko kontua da. Betiere, ziurtatu behar dugu ez dugula bultzatzen pasadizokoek bide horretatik jarraitzea".

Egubakoitzean, Arrasateko Caritaseko boluntarioekin ere izan ginen, eta eskekoak artatu zituzten egun hartan, besteak beste, arropa emanez eta, euren berri jaso ostean, bestelako laguntzak emanez ere: botikak, dirua...

Herrian batetik bestera goazela, eskaleak edozein bazterretan ikusiko ditugu. Dirua eskatuz eskua luzatu eta txanpon bat edo beste botako diegu, edo agian ez.

Neurriak neurri, pasadizoan herri batetik bestera beti ibiliko dira eskaleak. Bizitzako une jakin batean bizimoduari buelta eman eta berriz lehengora bueltatu nahi ez edo ezin dutelako, batetik bestera eskale joango dira.

## di-da batean

Irati Agirreazaldegia

### Aberatsek irri, pobreek negar

Gu baino gehiago duten horienetik esaten ditugu sekulakoak eta bi, konturatu gabe gutxiago izan eta eskean ikusten ditugun horiei guk ere gaizki begiratzen diegula maizegi.

Guk irabazten dugun erdiarekin biziko lirakeke gustura, horrekin ez izan duda. Ogia erosi ostean soberan ditugun txanpon horiek botatzen ditugunean eskekoaren eskura, egun horretan arinduko da apur bat eskertzeko egiten diguten irribarreak estaltzen duen tristura.



Francisco  
Levante

Semea hil eta emaztearengandik banandu zenetik, 1988tik, bizi eta lo egiten du kalean. "Notarioa nintzen, baina pertsonok bizitzako une batean *krak* bat sufritzen dugu eta une horretan ez dugu jakiten zulotik nola atera, eta mundua gainera etortzen zaigu". Armonika joz ateratzen du jateko behar duen dirua. "Euskal Herrira etortzen naiz afektibitate aurkitzen dudana leku bakarra delako; pertsona moduan hartzen naute. Kastillan begitu hutsarekin iraindu egiten naute".



Hector  
Vigo

Emaztearengandik banandu eta, umea zela eta, hainbat arazo izan zituenez, depresioan erori eta ihes egitea erabaki zuen. Hala ere, pixkanaka, bere bizitza berregiten ari da, eta familiarekin harremana berreskuratu du. Kalean, globoekin, umeendako irudiak egiten zituen dirua ateratzeko, baina orain aterpea eta lana ere baditu Arrasaten: "Gaixorik dagoen mutil bati laguntzen hasi eta bere etxean eman zidan ostatu. Gainera, Fagorrerako ere lantxo batzuk egiten ditut".



Maurica eta Maria  
Errumania

Hilabete batzuk baino ez daramatzate gure artean eta, etxerik eta lanik ezean, pabiloi batean egiten dute lo. Caritasek duen lokalera joaten dira laguntza bila, eta baita arropa biltegira ere. Bertan hartzen dituzte Trinik eta Josebak, eta behar duten arropa eman. Baina, iaiztik hona, mugak ipini dituzte, eta hamabostean behin baino ezin dira joan, horrela denendako arropa egon dadin. "Lan bila etorri gara Euskal Herrira, baina oraindik ez dugu aurkitu. Bizi irauteko, laguntza beharrezkoa zaigu, eta arropa bila etortzen gara Caritasera", esaten digute.

NEKAZARITZA &gt; TXAKOLINA

# Txakolin ekoizleen helburu bat bete da, baina Gipuzkoa izendapena nahi dute

Debagoieneko txakolin egileek Getariako Txakolina izendapena izango dute 2008an

Euren egoera legeztatu egingo delako pozik daude, baina Gipuzkoa izendapena nahi dute

LEIRE KORTABARRIA &gt; ARRASATE

Debagoieneko txakolin ekoizleek Getariako Txakolina izendapenarekin saldu ahal izango dute euren ardoa datorren urtean. Hori onartzen duen hitzarmenaren berri eman zuten joan den egunean Gonzalo Saenz de Samaniego Nekazaritza sailburuak, Rafael Uribarren Landa Garapen diputatuak eta Iñaki Txueka Getariako Txakolina izendapen ofizialaren presidentek. Hitzarmenak onartzen du Gipuzkoa osoko hainbat txakolin egile izendapenean sartzea. Horietatik hiru gurekoak dira: Jabier Arregi eta Felix Etxagibel arrasatearrak eta Juan Zelaia onatiarra.

Gureko ekoizleek iritzi kontrajarriak dituzte horren inguruan: batetik, pozik daude euren legez kanpoko egoera konpondu egingo delako; baina, bestetik, euren helburua Gipuzkoako Txakolina izendapena lortzea dela errepikatzen dute, eta horretarako lanean jarraituko dutela esan digute.



HITZARMENA Gonzalo Saenz de Samaniego (Jaurilaritza), Rafael Uribarren (Aldundia) eta Iñaki Txueka (Getariako Txakolina), hitzarmena aurkezten.

ARGAZKI PRESS

## "NI ARRASATEARRA NAIZ"

Rafael Uribarren, Landa Garapenerako diputatua, oso pozik dago hitzarmenarekin: "Gipuzkoako beste ekoizleen arazoa konponitzeko bide zuzena eta azkarrena Getariako izendapenean sartzea zen. Ekoizpena nekazarien errentaren zati bat da, eta gure helburua da baserritarrek ahalik eta errenta onenak ateratzea", diosku.

Gureko ekoizleek bazekiten prozesua horixe zela, baina hitzarmenak ezustean harrapatu ditu. Felix Etxagibel bedoñarrak dioenez, "gure egoera legalizatzeko irtenbide bizkorrena zen, batez ere, epe laburrera. Irtenbide onena den? Guk gura duguna da Gipuzkoako edo Euskadiko Txakolina izendapena". Beste alde txar bat ere ikusten dio: "Prozesu luze bat irekiko da

orain, eta badirudi datorren urtera arte ez dugula izendapena izango. Hortaz, aurtengo ekoizpena galdu egiten da".

Jabier Arregi Hegiaundi baserrikoak ere alde onak eta ez hain onak ikusten ditu: "Bai, pozik nago, gure egoera konpondu egingo delako; baina, bestetik, ni arrasatearra naiz, ez getariarra, eta jendeak ez du jakingo Getariatik kanpo ere txakolin ona egiten

dela. Guk Gipuzkoako izendapena eskatzen jarraituko dugu".

Rafael Uribarren diputatuari aukera hori badagoen galdetuta, ordea, hauxe esan digu: "Ez, aukera hori guztiz baztertua dago. Irtenbide azkarrena eta onena Getariako izendapena zabaltzea zen, eta hori egin dugu".

Hortaz, gureko ekoizleek Getariako Txakolina izendapena izango dute datorren urtean.

**"Gure egoera legeztatzekeo irtenbide azkarrena zen Getariako izendapenean sartzea, baina beharbada ez da irtenbide onena"**

Felix Etxagibel > Arrasateko ekoizlea

**"Gure egoera konpondu egin da, eta horregatik pozik nago baina, bestetik, ni ez naiz getariarra; Gipuzkoako izendapena gurako nuke"**

Jabier Arregi > Arrasateko ekoizlea

**"Prozesu luze bat irekiko da orain, eta datorren urtera arte ez digute izendapen ofiziala emango; aurtengo ekoizpena galdu egin da"**

Felix Etxagibel > Arrasateko ekoizlea

**"Gipuzkoako Txakolina izendapena sortzeko aukera guztiz baztertu da; hartu duguna bide azkarrena eta onena izan da"**

Rafael Uribarren > Landa Garapen diputatua

## Zeramika erakusketa: Buztina eta sua Eskoriatzan

- **Inaugurazioa:** Otsailaren 23an, arratsaldeko 19:00etan.
- **Tokia:** IBARRAUNDI jauregian.
- **Egunak:** Otsailaren 23tik martxoaren 11ra.
- **Ordutegia:** Astelehenetik ostiralera 9:00-14:00 eta 17:00-19:00  
Larunbata: 17:00-20:00  
Igandea: 12:00-14:00 eta 17:00-20:00



Intxaurtxueta kalea z/g,  
Eskoriatza.  
Telf. 943715453

PRESOAK > LANUZTEA PRESOEN ESKUBIDEEN ALDE

## Egubakoitzerako ordubeteko lanuztea deitu du Etxeratek

Zapatu arratsaldean, manifestazioa izango da Bilbon, 'Amnistia eta Autodeterminazioa Euskal Herriarentzat' lelopean

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Euskal preso politikoen kolektiboaren borrokarekin bat eginez, ibarreko ezker abertzaleko ordezkariak dei egin dute otsailaren 23an eta 24an egingo diren protesta ekintzetan parte hartzeko.

Otsailaren 23an, Etxeratek deituta, *Nahikoa da! Eskubide guztien jabe euskal presoak Euskal Herrira* lelopean, ordubeteko lanuztea egingo da 12:00etatik 13:00etara. ELA sindikatuak jakinarazi du ez duela bat egingo deialdi horrekin. Otsailaren 24an, manifestazioa izango da Bilbon, *Amnistia eta Autodeterminazioa Euskal Herriarentzat* lelopean.

PRESOEN ESKUBIDEAK

Oñatin, bi hitzordu hauen berri emateko egindako agerraldian, esan zuten: "Espetxe politikak euskal preso politikoa muturreko egoeretaraino eramaten ditu". Horren adibide modura,



AGERRALDIA Oñatin, agerraldia egin zuten zapatuan.

MIREIA BIKUÑA

"gaixorik eta egoera larrian diren sei preso, 92. artikulua ukatu dioten Bautista Barandalla eta hiru laurdenak zein zigor osoa betarik edo gaixotasun larriengatik kalean behar luketen 150 preso" aipatu zituzten.

"Irudi lazgarriena Iñaki de Juana Chaos presoarena da",

esan zuten. Preso donostiarrak 100 egunetik gora daramatza gose greba mugagabea.

Beraz, egubakoitzerako lanuztea presoen askatasuna eskatzeko ekintza izango da, eta gaur, astelehena, Arrasaten beste agerraldi bat egingo du Etxeratek deialdia errepikatzeko.



NORBERAK Emakume bat konposta ateratzen.

ARTXIBOA

MANKOMUNITATEA > BIRZIKLATZEA

## Konposta egiteko bigarren kanpaina zabalik dago

Oraingoan, 150 boluntario behar dituzte, eta izenemate epea etzi, eguaztena, zabalduko da

LEIRE KORTABARRIA > ARRASATE

Zabalik dago norberak etxean konposta egiteko Mankomunitatearen bigarren kanpaina. Kanpaina parte hartzeko 150 familia behar dituzte orain, eta izenemate epea etzi, eguaztena, zabalduko du Mankomunitateak 943 79 33 99 telefonoan. Baldintza da lursaila edukitzea.

Aurreko kanpaina 75 familiarekin egin zuten. "Orduan, 20 familia kanpoan geratu ziren. Harrera on hori ikusita, orain

konpostagailu gehiago eskatu dizkiogu Aldundiari", dio Marta Garmendia arduradunak.

JARRAIPIEN BISITA GUTXIAGO

Kanpaina aurreko berdina izango da. Hala, parte-hartzaileek ikastaro labur bat egin beharko dute konpostagailua erabiltzen ikasteko. Desberdintasun bat egongo da: aurreko kanpaina, jarraipen bisitak astero egiten zituzten, baina orain, noizean behin izango dira.

SINDIKATUAK > LAB-EN KANPAINA

## Euskal lan eremua aldarrikatuko du LAB sindikatuak

'Langileok autodeterminazioa' delako kanpaina aurkeztuko du LABek bihar, martitzena, Arrasaten

L.K. > BERGARA

*Langileok autodeterminazioa* delako kanpaina aurkeztuko du LAB sindikatuak, eta Debagoienari dagokionean, Arrasateko euren egoitzan emango dute horren berri bihar, martitzena, 12:00etan.

Kanpaina horren helburua honakoa da, LABen esanetan: Euskal Herriaren eremu sozioekonomikoa errebindikatzea. "Erabakiak, erreformak... horiek guztiak Madrilan egiten dituzte, eta guk ez dugu parte hartzeko aukerarik, ez eta horien aurka egiteko aukerarik

ere. Gure legeak, estatutuak... egiteko beharra aldarrikatuko dugu", azaldu dute sindikatuordezkariak.

Besteak beste, martxoaren 3an, Gasteizko langileen aurkako errepresioaren urteurrena izango da, baina ekintzak hila ren 1era aurreratu dituzte. Debagoieneko LABek Arrasateko INEMen bulego parean kontzentrazioa egingo du.

IRAKASKUNTZAN BOZKETA

Sindikatuaren arloko berriekin jarraituz, CCOO sindikatuak irabazi ditu joan den eguaztean egin ziren EAEko irakaskuntza publikoko hauteskundeak; baita, Debagoienari tokatzen zaion neurrian, unibertsitatetik kanpoko irakasle funtzionarioen hauteskundeak ere. CCOOk 31 hauteski lortu ditu; gero, EILAS (25), LAB (20) eta ELA (18) izan dira. Gipuzkoan ere, CCOO izan da bozkatuena.

LANA > SEGURTASUNA ETA OSASUNA

## Lan segurtasunaz jardunaldiak egingo dituzte Arcelorren

Besteak beste, langileek tailer praktikoak egingo dituzte, lan arriskuak saihesten ikasteko

L.K. > BERGARA

Bergarako Arcelor enpresak laneko segurtasunaren eta osasunaren gaineko jardunaldi batzuk egingo ditu martxoaren hasieran. Batik bat, lantegiko langileei darduzenduta. Enpresako ordezkariak jakinarazi digute Euskal

Herriko eta kanpoko adituak etorriko direla; besteak beste, Luxemburgotik, Arcelorren negozio arduraduna etorriko da.

Ekitaldi nagusiak martxoaren 6an izango dira, baina otsail bukaeran ere egingo dituzte ekintza batzuk.

TAILERRAK

Jardunaldiok helburu didaktiko nabarmena dute. Hala, hainbat postu jarriko dituzte, eta, taldeka, horietatik pasatzen joango dira langileak. Hainbat aholku emango dizkiete, lan arriskuak nola saihesten daitezkeen erakusteko: hala, arnesak nola jarri behar diren, garabiak nola kateatu behar diren... irakatsiko die, besteak beste.

**BASABE**  
jatetxea

Basabe bidea z/g  
Tel.: 943 77 07 94  
Aretxabaleta

**IRIARTE**

Umeen denda  
Helduen lentzeria

Durana 8  
Tel.: 943 79 10 96  
ARETXABALETA

**Hirusta**  
Jatetxea

Ilargi plaza 4  
943 79 06 57  
ARETXABALETA

Sei urte luze pasa dira Garaia Berrikuntza Gunea izeneko egitasmoa abiarazi zutenetik; sei urte luze eta hainbat burukomin. Baina Arrasateko parke teknologiko berria dagoeneko hasi da etorkizunean izango duen itxura hartzen. Andoni Gartzia, Garaiaiko kudeatzaileak, konfirmatu du itxura baino gehiago hartzen dabilela, eta apirillean estreinatuko dutela.

Andoni Gartzia > Garaia Berrikuntza Guneako kudeatzailea

# "Apirilean lehen 'bizilagunak' etorriko dira Garaia Berrikuntza Gunea"

UBANE MADERA > ARRASATE

Sei urte pasa dira Garaia Berrikuntza Gunea izeneko egitasmoa abiarazi zutenetik, eta Garaia berrikuntza hasi da behin betiko izango duen itxura erakusten. Poloaren kudeatzaile Andoni Gartzia jakinarazi du apirilean sartuko direla lehenengo bizilagunak Arrasateko parke teknologiko berrira.

## Lanak aurrera doaz, beraz?

Bai. Lehenengo fasea bukatuta dago. Beheko aldean biribilgune txikitxo bat egitea falta zaigu. Bestela, Garaia berrikuntza, barruko errepidea, egiten gabiltza, eta milioi erdi edo milioi bat metro kubiko lur mugitu ditugu hainbat eraikin egiteko. Errepide ondoan eraiki dugu lehen ikerketa zentroa, lehenengo proiektuak abiarazteko. Uste dugu apirilera lehen bizilagunak etorriko direla. Oinezkoen pasabidea egin da dago, eta nahiko polito geratu da. Gura dugu inguru hau gune berezi bat izatea, lorategi botaniko handi bat bilakatu gura dugu, hau aisialdi gunea ere izan dadin, paseatzeko leku bat. Erdian, bi baserri geratu dira; gorago, gehiago; bi etxe berri egin dira, eta baserri berezi bat egin behar dugu Gautxori partean: Arizmendiarrrieta familiaren baserria.

## Zein enpresak erabiliko dute lehen eraikin hori?

Garaiaiko langileak joango gara; MCCko promozio zentroa; ATEGI (Interneteko erosketataria); Aretxabatetako Dualia enpresa; eta gizarte mailako ikerketak egiten dituen ESAI enpresa. Eraikinen %30-eko beteko dugu. 50-75 bat lagun. Dena den, pentsatzen dugu, urtebete barru-edo, bi eraikin horietan, 10.500 metro koadro horietan, 200 lagun baino gehiagorendako lekua izango dela.

## Garaia maldan gora dagoen eraikin bat ere oso aurreratuta dagoela dirudi...

Edertek da hori. Abiaraziko duten lehenengo ikerketa zentroa izango da. Industrializatuen modulu aurreratu bat jarriko dute, galdaketarekin lotutakoa. 40 bat lagun etorriko dira hasieran.

## Garaia inguruko zifrak potoloak izango dira, ba.

500.000 metro koadro dituguneak. Sei urteotan, gutxi gorabehera, 35 milioi euro inbertitu dira. Urbanizazioa bigarren eta hirugarren faseak egitea falta da, eta beste 8-9 milioi euroko inber-



Garaiaiko kudeatzailea, Andoni Gartzia, Arrasateko bulegoan Garaia Guneako infografia erakusten.

U.M.

tsioa egin beharko dugu hor; esaterako, Garagartzarekin lotura egingo dugu. Bihotza bukatzeko, 400 bat metro errepide egitea falta zaigu. Eta Garaia berrikuntza gune berezi bat eraiki gura dugu, zerbitzu orokorrak ipintzeko. Hori izango da beste 10-12 milioi euroko inbertsioa. Bestalde, lanera edo ikastera datozenendako, egoitza bat ere eraiki behar dugu.

Guk 50 milioi euro inbertitzeko asmoa dugu. Oraingoz, ez dugu dirurik, baina, pixkanaka, egingo dugu. 10-12 urtera begirako egitasmoa da. Induzitutako inbertsioaren bitartez, 100 milioi euroko inbertsioa izatera iritsiko da.

Garaia irabazi asmo bako enpresa zerbitzuen kooperatiba da, momentuz, munduan dagoen bakarra, parke teknologiko baten gestore moduan.

Jaurlaritzako ordezkariak (SPRILUR), Foru Aldundiko beste bat, MCC Fundazioa eta Arrasateko Udala dira bazkide sortzaileak. Gero, bazkide erabiltzaileak izango lirateke.

## INAUGURAZIOA

**"Uda inguruan inaugurazio bat egitea polita litzateke, sei urte pasa dira-eta hasi ginenetik"**

## PARKE TEKNOLOGIKOEN SAREAN

**"EAEko, Estatuko eta nazioarteko parke teknologikoetako kide da Garaia"**

## AISIALDI GUNEA

**"Inguru hau gune berezia izatea gura dugu; lorategi botaniko bilakatu gura dugu, aisialdi gune izan dadin"**

## Lekualdaketak egin bitartean, obrek aurrera egingo dute?

Bai. Datorren astean hasiko dira botatzen ondoan ditugun eraikin zaharrak.

## LKS izango da, adibidez, erabiltzaile horietako bat?

Esango nuke abuztuan egingo dutela lekualdaketa, eta LKS talde osoarendako eraikin berezi bat egingo dugu, 3.500 m<sup>2</sup> ingurukoa. Berrikuntza gune bat izango du. 200 bat lagun ibiliko dira.

Horrez gainera, hemen, ibarrean, dauden beste ikerkuntza zentro batzuek, Garaia izan daiteke toki berezia jarduna handitzeko edo lantzeko.

Mondragon Unibertsitateak berak ere hemen zertxobait egiteko asmoa izango duela pentsatzen dugu.

Beraz, hiruzpalau urte barru, Edertek bezalako sei enpresa izateko aukera egongo da. Horrez gainera, pentsatzen dugu oraindik gauza berriak ere ateratzen joango direla.

## Hain justu, gure ibarretik kanpoko enpresak ere erakarri gura dituzue hona, ezta?

Bai, jakina. Hau ez da izango bakarrik kooperatibarendako edo MCCrendako. Baina kosta egiten da beste leku batetik etortzea. Gu saiatzen ari gara hainbat enpresarekin hitzarmenak egiten, ikerketa, garapena eta berrikuntza lantzerako etor daitezten. Pixkanaka-pixkanaka, bagabiltza lortzen.

## Halako lekuetan, teknologia berriek berebiziko garrantzia dute. Garaiak ere izango du eskaintza berezia, ezta?

Bai, Data-Center du izena. Informazioaren eta teknologiaren komunikazioan oinarritutako jarduerak da. Enprek behar dituzten zerbitzuak bideratuko ditugu. Gure bazkide teknologikoa MCC Telecom izango da (LKS Intercom eta Mondragon Connet-en arteko lotura), eta hura arduratuko da zerbitzu horiek kudeatzeaz. Hortxe gabiltza, ea Telefonica behin betirako sartzen den proiektu honetan.

Data-Center aurreneko bi eraikin horietako batean egongo da. 600 bat metro koadro hartuko ditu; 700 ordenagailu izango ditu, gutxi gorabehera. Horren bitartez, adibidez, Gasteizen dagoen enpresa batek hemendik har dezake zerbitzua; edo, Panda Antivirusek, noizean behin, bidaltzen die munduan dituen bezero guztiei mezuren bat; hori, gaur egun, Madrilan dagoan Data-Center baten bitartez egiten da, eta hemendik egin ahal izango dira halakoak etorkizunean. Pentsatzen dugu irail edo urri inguruan abiarazita egoteko bidea izango dela.

## Datorren urrian, beste hitzordu garrantzitsu bat ere badu Garaiak, ezta?

Urriaren 16 eta 17an, Espainiako parke teknologikoen elkarrekin Garaia gunean egingo du VI. Nazioarteko Kongresua. Zientziarekin, teknologiarekin eta berrikuntzarekin lotutako gaiak landuko dituzte, konbergentzia teknologiaran inguruan. Auditorium txikitxo bat prestatuko dugu ordurako, 200 bat pertsonarendako.

Bestalde, uda inguruan inaugurazio bat-edo egitea polita izango dela pentsatzen dut. Urteak joan, urteak etorri, denborak aurrera egiten du. Sei urte pasatu dira dagoeneko.

## oharrak eta deialdiak

ELGETA

### > Gurasoendako batzarra deitu dute eskolan

Datorren ikasturtean herri eskolan matrikulatzekoak diren bi urteko umeen gurasoendako batzarra deitu dute. Hilaren 22an izango da, 16:00etan, eskolan.

ARRASATE

### > Mendi irteera antolatu du Besaide elkarteak

Hilaren 25erako antolatu du irteera Besaide elkarteak. Ardoaren eta arrainaren ibilbidea (GR-38) egingo dute, Bermeotik Mendatarara. 07:30ean abiatuko dira. Gaur irekiko dute izena emateko epea -19:30etik 20:30era- eta 22a izango da azkeneko eguna.

ARRASATE

### > Taila ikastaroa Tailaginen elkartearekin

Hasierako maila emango dute. Eskolak elkartearen egoitzan izango dira (Erguin kalea 19, behea). Izena emateko eta informazio gehiagorako deitu: 645 70 59 13/943 79 40 79 (Felix) edo 943 79 77 57 (Jose Mari).

ELGETA

### > Erretiratuendako mahai jokoak egingo dituzte Ozkarbin

Gaur, astelehena, erretiratuendako mahai jokoak egingo dituzte Ozkarbi elkartearen. Parte hartu nahi duenak egun horretan jo beharko du elkartera,

16:00etan. Egingo diren jokoak dira: briska, musa eta tutea. Elgetako erretiratuen elkarteak antolatu du ekitaldia.

ARRASATE

### > Bide heziketaren gaineko hirugarren saioa gaur, astelehena Abaroan

Gaur, hilak 19, egingo dute bide heziketaren gaineko hirugarren saioa. *Kontrolpean gidatu* delako gaia jorratuko dute. 18:00etan, Abaroako 5. gelan.

ELGETA

### > Ikastaro gehiago izango dira KZgunean

*Zure kanala sintonizatu* delako ikastaroa egingo dute hilaren 28an. 17:00etatik 18:00etara izango da, euskaraz. Informazio gehiago: 943 79 94 44.

ARRASATE

### > 1930ean jaiotakoek bazkaria egingo dute

Martxoaren 3an egingo dute bazkaria ur-

te horretan jaiotakoek. 12:15ean meza izango dute San Juan Bataiatzailearen parrokiaren eta 14:30ean bazkaria, Bittori erretegiaren. Izena emateko 943 79 80 08 telefono zenbakira deitu.

ESKORRIATZA

### > Sinadura elektronikoen gaineko ikastaroa KZgunean

Hilaren 23an sinadura elektronikoen gaineko ikastaroa egingo dute. 18:00etatik 19:00etara izango da, euskaraz. 19:00etatik 20:00etara, berriz, Internet bidez egunkaria nola irakurri erakutsiko dute. Informazio gehiagorako deitu 943 79 94 44 telefono zenbakira.

ARRASATE

### > Hastapen eta sakontze perkusio ikastaroa

Otsailaren 26an hasi eta apirilaren 2ra arte izango dira eskolak, astelehenetan: hastapen maila 18:00-19:30 izango

da eta sakontze maila, 19:30-21:00. Iñaki Bruñak emango ditu eskolak. Prezioa 20 euro da; 12 euro ikasle eta langabeendako. Izena emateko jo Gazte Bulegora, [www.gaztebulegoa.com](http://www.gaztebulegoa.com) helbidera idatzi edo deitu 943 77 00 65 telefono zenbakira.

DEBAGOIENA

### > Kilometroen aldeko ota-reak atera dituzte

Kilometroak 07k porra antolatu du produktuez beteriko ota-reak zozketatzeko. Debagoieneko taberna, denda eta bestelako komertzio-etan jarri dute porra hori bi euroren truke.

ARRASATE

### > Urpekaritza ikastaroa egingo du K-Sub zentroak Musakolan

Urpekaritza ikastaroa apirilaren izango da. Ikastaroaren aurretik, baina, bataio-probaldia egingo dute. Martxoaren 10ean izango da, 17:00etan. Izena emateko jo Musakola kiroldegiko harrerara martxoaren 7a baino lehen. Izena ematen duten lehenengo 16 lagunekin itxiko dute izenematea.

ELGETA

### > Gaztetxoendako mendi irteera antolatu dute

Egoki taldeak 8 eta 12 urte artekoendako mendi irteera antolatu du. Hilaren 24an egingo dute irteera hori, Intxortara. Gauez egingo dute ibilaldia.

## etxeko leihotik



Usua Agirre > Goienako Telematika arduraduna

## Ingurua hondatu eta ordaindu egin behar

Gaur egokia litzateke Aratusteen gainean idaztea, gehienok ibili gara-eta asteburuan Aratusteen bueltan. Baina, beste gai bat dut buruan bueltaka.

Oraindik ez dute behin betiko erabakirik hartu -hauteskundeak dira laster eta ez da komeni boto emaileak gehiegi haserretzerik- baina Gipuzkoako Batzar Nagusietako politikari gehienek begi onez ikusi dute Beasain-Durango autobidean kobratzea. Debagoienetik kanpora joateko bide txukunen bat erabili nahi badugu ordaindu beharra daukagu: Gasteiz aldera edo Eibarrrera joateko AP-1 autobidea ordaindu egingo dugu; Elorriora joateko Beasain-Durango ordaindu egingo dugu; eta, azkenik, Urretxura joateko autobidea ere ordaindu egin beharko dugu.

Ibarra hondatuko digute autopista, autobide, AHT eta abarrekin. Eta ingurua hondatzea nahikoa ordaintzea ez bada, diruz ere ordaindu beharko dugu (zergez aparte, noski).

Baina, lasai, errepideak ordaindu behar baditugu gutxiera erabiliko dugu autoa eta jarriko diguten super-tranbia eta super-autobusekin ondo ibiliko gara hara eta hona.

**> Ez dakit noiztik dagoen Beasain eta Durango arteko autobidea egiteko proiektua. Nik baino urte gehiago dituela esatera ez nintzateke ausartuko, baina hor nonbait ibiliko da.**

**> Aratuste-martitzendagoen Beasain eta Durango arteko autobidea egiteko proiektua. Nik baino urte gehiago dituela esatera ez nintzateke ausartuko, baina hor nonbait ibiliko da.**

**"Ibarretik kanpora joateko bide txukuna ordaindu egin beharko dugu"**

## debagoiendarrak kanpoan

Agustin Amasorrain > Bergara

# "Donostiak ibiltzeko aukera asko ematen du; oso hiri eroso da"

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Agustin Amasorrain, lan kontuak tar-teko, 1986an joan zen Donostiara bizi izatera. Orduetik han bizi da; hala ere, Bergarara bisitan etortzeko ohitura baduela aitortu digu.

### Noiz joan zinen Donostiara bizi izatera?

1986an etorri nintzen, orain urte dezente. Lan kontuengatik etorri nintzen Donostiara bizi izatera.

### Donostian lana aurkitu zenuenean, Bergara utzi eta hara joatea erabaki zenuen?

Ez, lan ez dut Donostian egiten, lan Ordizian egiten dut. Orona enpresan hasi nintzen lanean, eta Ordizian egin arren lan, Donostiara bizi izatera joatea erabaki genuen.

### Zer du Donostiak Bergarak ez duena?


Donostia oso hiri eroso da: ibiltzeko, paseatzeko... toki asko dauzka. Bestalde, aktibitate kultural asko egiten dira Donostian; hiri batek herri batek baino aukera gehiago ematen du kultura ekintzak egiteko.

### Nolakoa da zure eguneroko bizitza Donostian?

Normalean, lan eta lan egiten dut. Gero, lanetik ateratakoan, denetarikoz kontzertu edo erakusketatara joateko ohitura izaten dugu.

### Eta alde zaharrea pintxo jaten ibiltzeko ohiturarik baduzue?

Ez, ez gara alde zaharrera asko joaten, Boulevard inguruan ibiltzen gara gehiago. Gainera, gu



GOIENKARIA

### 1986an Donostiara joana

Bergararra da eta Ordizian egiten du lan, Oronan. Bizi, baina, Donostian bizi da, Gros auzoan.

Grosen bizi gara, eta auzo horrek ere aukera ugari ematen ditu; hondartza berriekin, oso ondo geratu den auzoa da Gros.

### Zenbatean behin egiten duzu herrira bisita?

Sarri joaten gara Bergarara; familia ospakizunak direla edo jaiak direla, beti dago aitzakia- ren bat herrira bisitan joateko.

### Eta herriko zer igartzen duzu faltan Donostian?

Gehienbat, jendearekin dudan harremana sumatzen dut faltan, lagunak ematen duten hurbiltasuna. Azken batean, herriko giroa hurbilagoa izaten da.

**1986. urtean, Donostiara joan zinetenean, nolako giroa aurkitu zenuen Gipuzkoako hiri-**

### buruan? Askok aldatu dira gauzak orduetik?

Gu Donostiara etorri ginenean, Donostian bertako jendea bizi zen. Hau da, urte guzti hauetan, etorkin asko etorri da hiriburura. Eta ez bakarrik probintziatik hiriburura etorri den jendea; atzeritik ere etorkin asko etorri da Donostiara bizi izatera.

Bestalde, Donostiak, eraikuntza aldetik, izugarritzko aldaketa izan du. Eraikuntza berri mordoan egin dira 80ko hamarkadatik gaur bitartean.

### Donostiako ikurretako bat irailan ospatzen den Zinemaldia da. Baduzu Zinemaldira joateko ohiturarik?

Ez; egia esan, ez dut Zinemaldira joateko ohiturarik izaten, denbora libre gutxi izaten dut.

## kale inkesta

## Trabarik egiten dizu jai eta ospakizun egunetan sortzen den zarata handiak?

Itxaso Zumelaga  
Langilea  
Bergara

Ni Masterreka kalean bizi naiz; eta etxe inguruan ditugu tabernak, eta baita elkarteak ere.

Jai egunetako zaratak onartu egiten ditut, ni ere gazte izandakoa naizelako, eta parrandak egindakoa ere bai.

Itziar Aldekoa  
Langilea  
Bergara

Bergara erdialdean bizi naiz, eta Inauterietan zarata egon da. Baina, nire ustez, onartu beharra dugu, urtean egun zehatz batzuk dira-eta. Hori bai, gaixoak dituztenek ez dute gauza bera pentsatuko.

Begoña Mujika  
Langilea  
Bergara

Erdialdetik urrun samar bizi naiz, Matxiategi kalean, hain zuzen, eta gure etxe inguruan ez dugu zaratarik entzuten. Bada, zarata izanez gero, onartuko nuke, baina bakarrik urteko jai egunetan.

Agustina Aramendi  
Etxekoandrea  
Bergara

Matxiategi kalean, jaietako zaratarik ez dugu entzuten. Tarteka, Jam aretoan egoten diren kontzertuetako zarata entzuten dugu, baina oso gutxi. Baina ez nituzke aste bukaera guztietan zaratak onartuko.

## zorroztailea



Markos Balentziaga

## Egoera etilikoan

"Nafarroaren patua nafarrek erabakiko dutela esateko egoera etilikoan egon behar da". Hitzok iazko azaroan esan zituen Miguel Sanz Nafarroako Gobernuako presidentea (...). Patxi Zabaleta Aralarko koordinatzaileak (...) eskatu zion Sanzi (...) hitz horietan atzera egiteko".



Berria &gt; 2007-02-16

Nafarroaren patua nafarrek erabakiko dutela esateko egoera etilikoan egon behar da". Horixe jaurti zeban Miguel Sanz Naparruako Gobernuako presidentiak mitin batian. Aralarko Patxi Zabaletak joan dan astian egin zotsan galdera parlamentario baten harira, egubakoitzeko Berria-k jaso zeban presidentiak botatakua.

Egixa da gogorantziak adarra askotan jotzen doskuna, baña ez geunkan ba adostuta Naparruaren etorkizuna naparren artian erabakiko giñuala, Arabarena -nun da Ladrón de Guevara eta De Benitoren Unidad Alavesa?- arabarren artian, eta Euskadirena... entre todos los españoles? Eta orain, hau? Bermutarekin batera zerbitzen dan azeituna-hazur bat zalakuan jaurti ote zeban ba don Miguelek, ahotik, halakua? Zenbatgarren bermutaren ondoren izan zan mitiña?

Sanzen berbeta-jarduna zakarra izaten da askotan, gaztainakoskola bezain latza; tiran jarduten dau, defentsiban. Baña oraingo lapsuseraino iristeko, zer ote zerabilen buruan?

Inkesten arabera Naparruako eskumiak ez dauka seguru datorren maiatzeko hauteskundeetan gehiengo politikua bertako parlamentuan. Analistak UPN-ren larritasuna ikusten dabe alderdiko liderren era bateko eta besteko esanetan eta jardunetan; urduritasuna aitatzen dabe behin eta berriro. Kontua da Patxi Zabaletak joan dan astian, Parlamentuan, kargu hartu zotsanian, Miguel Sanzek erantzun hoberik ez, eta eterra gora eta eterra behera ekin zotsala, bere burua zela zurritu asmatu ezinik.

Poetiak esandakua da ez dagoala ez teologorik ez filosoforik arduari neurrira hartuko dotsanik; politikuak apenas ibiltzen diran fiñago deskuidatzen diranian, bermutakin izanda be.

**"Zenbatgarren bermutaren ondoren izan zan Sanzen mitiña?"**

**"Naparruako eskumiak ez dauka seguru gehiengua hauteskundeetan"**

## irakurlearen txokoa

943 25 05 02

goienkaria@goiena.com

BERGARA

## &gt; Zuloak errepidean

Auto gidari batek, errepideko zuloak direla eta, honakoa azaldu digu: "Amillaga kalean, errepidean, sekulako zuloak daude, eta autoarekin zuloak saihesten ibili behar gara. Jakin badakigu denboraren joanean bidea hondatzen dela, baina ez legoke gaizki noizean behin zulo horiek estaltzea. Horrela, autoak ez hondatzeaz gain, istripuak ere saihestu daitezke".

OÑATI

## &gt; Plazako aparkalekuak

Irakurle batek deitu digu esanez, Oñatiko plazan, aparkalekuetako marrak margotuta egon arren, egun batzuetan, jendeak ez dituela marrak errespetatzen. "Bakoitzak nahi duen moduan uzten ditu autoak, eta plazara sartu-irtenean dabilzan autoak traba-tuta geratzeko arriskua egoten da. Geratu izan naiz behin baino gehiagotan ez aurrera ez atzera, beste batzuek autoa gaizki aparkatu dutelako", esan digu.

BERGARA

## &gt; Aratuste ondorena

Zapatuko Aratuste ospakizunen ostean, herritar batek baino gehiagok aipatu digu domeka goizean kaleek zuten itxura. Bergaran, kaleak zikinak egoteaz gain, mozorroetako soberakinak, botilak... kalean botata agertu zirela esan digute. "Ondo pasatzea da gauza bat, baina ahal dela txukun ibilita", zioen irakurle batek.

## ustek uste

Edune Burgaña

## Mozorro egokiaren bila

Aurtengo Aratusteetako mozorro egokiarena zein den pentsatzen hastea ez da lan erraza. Debagoieneko herri guztietan egon dira mozorroak. Batzuetan beste batzueetan baino originalagoak: urteroko pailazoak ikusi ahal izan ditugu. Baita nazkatu arte ikusi ere. Eta buruan maskara jarri eta nola jantzita doazen ez dakitenak ere egon dira.

Herri bezala originalena zein izan den aukeratzeko orduan Aretxabaleta aukeratu nuke. Paseoan ibiltzen diren andreak, ostruken lehiaketa, kakalardoak, brasildarrak... Eta euria hasi zenean aterkiak atera eta bakoitzak ahal zuen moduan hotz gutxien pasatzeko lan makala ez zuten egin!

Eta zeintzuk ez zuten hotzik eduki? Ba eskimalek. Horiek bai jakin negua negu dela.

## Goienkaria

Argiraratzaila Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE  
Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Leire Kortabarría Erredaktorea Mireia Bikuña, Arantzazu Ezkibel, Iratxe Agirreazaldergi, Edune Burgaña Oinarritzko diseinua Goli Arana Diseinu arduraduna Alex Azkarate Maketazkoa Imanol Soriano, Kepa Martelo Publizitate arduraduna Mireia Larrailaga Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazio arduraduna Agurtzane Gaintzarain

## EGOITZA NAGUSIA

BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13  
Posta-e: goienkaria@goiena.com

## ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Oñalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89  
Posta-e: arrasate@goiena.comARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54  
Posta-e: aretxabaleta@goiena.comPublizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93  
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-0088/04 • ISSN: 1697 3542 • Tirada: 5.000 ale



ASTELEHENEN GOIENKARIAK ez du bere gain hartzen IRTIZIA orrialdean, edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

## Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Gipuzkoako  
Foru AldundiaEUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCOKULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako SailburuordetzaEusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
diruz lagundutako aldizkaria



# Herriak

Arrasate > 10 Bergara > 11 Oñati 12 Aretxabaleta > 13 Eskoriatza > 13  
Antzuola > 14 Aramaio > 14 Elgeta > 14 Leintz Gatzaga > 14



## > ARRASATE

Erasotu zuten La Caixako bulegoak 250.000 eurotik gorako kalteak dituela baloratu dute > 10



## > BERGARA

Seminarioko aparkalekuak egiten hasiko dira; eta azpilagatzeaz hitzarmena sinatuko dute gaur > 11



## > OÑATI

Olakua auzoko zirkulazioa berrantolatu egingo dute martxoan, eta hainbat seinale ipiniko dituzte > 12

ESKORIATZA > ONBIDE.ORG ELKARTEA

# Garapen iraunkorraren alde segiko du Onbide.org-ek, izaera ofizialarekin

**BATZARRA** Zapatuan, estatutuak onartu eta zuzendaritzako kideak aukeratu zituzten batzar orokorrean

**IDATZIA** Autobidearen eta AHTren harira dituzten eskaerak udaletan aurkeztuko dituzte idatzi baten

LEIRE KORTABARRIA > ESKORIATZA

Onbide.org elkarteak badauka izaera ofiziala, estatutuekin eta zuzendaritza taldearekin. Hala onartu zuten herenegun, zapatua, elkarteko 100 bazkideetatik batzar orokorrean batu ziren 70ek.

Horrenbestez, hauek dira zuzendaritza organoko kideak: Juan Karlos Beloki, presidentea; Iñaki Ulibarriarana, presidenteordea; Pedro Lasagabaster, idazkaria; Unai Salaberria, kontuhartzailea; eta elkartean ordezkatuta dagoen herri bakoitzeko bokal bat. Izan ere, elkartearen sortzeko ekimena eskoriatzar talde batek izan arren, gaur egun Aramaio, Arrasateko, Aretxabaletako eta Leintz Gatzagako bazkideak ditu Onbide.org-ek.

Estatutuetan, elkarteak helburu nagusitzat aitortzen ditu honakoak: garapen iraunkorraren alde lan egitea, batez ere azpiegitura handien kasuan; azpiegitura handiek zein beste obra batzuek kaltetutakoei laguntzea; azpiegitura horietan eurek ikusten dituzten hobekuntzak aztertzea eta proposatzea; eta erakundearen aurrean kaltetuak koordinatzea eta ordezkatzea.

## EIBAR-GASTEIZ

Bazkideek kezka ugari agertu zituzten batzarrean. Aspalditik datoz Eibar-Gasteiz autobideak gurean sortu dituen kezkak eta arazoak, baina Abiadura Handiko Trenak ere beste hainbat eragiten ditu; eta hizpide izan zituzten ere bidegorria eta tranbia.



BATZARRA Onbide.org-ek 100 bazkide inguru ditu, eta 70 bat egon ziren zapatuko batzar orokorrean, Eskoriatzako liburutegian.

JOSETXO ARANTZABAL

AP-1 autobideari dagokionez, batez ere Eskoriatzan obrek eragiten dituzten arazoengatik, udal plenoetara mozio bat aurkezteko erabaki dute. Auzo-errepideetan trabak eragitea eta kamioiak abia-

da handiegian ibiltzea; egin diren kalteak –ur-hornikuntza sarea, baso-pistak...– ez konpondu izana; eta agindutako neurri konpentsatzaileak –auzoendako ekipamendu sozio-kulturala eta kiroleta-

koa, besteak beste– geldituta egotea, nahiz eta aspaldi hitzartuta egon; horiek aipatu zituzten batzartutakoek, eta horiek jasoko dituzte Onbide.org-ek bere mozioan. Horren bitartez, lehen ere egindako kexuak berriro errepikatuko dituzte, entzungo dizkieten itxaropenarekin.

## ABIADURA HANDIKO TRENA

AP-1 dela-eta, Foru Aldundiarekin eta, zehatzago esateko, Bidegi enpresa publikoarekin ika-mika asko izan ditu Onbide.org-ek, baina, AHTren harira Jaurlaritzarekin orain arteko harremana "ona" dela dio Pedro Lasagabasterrek: "Behin batzartu gara. Guk informazio falta handia ikusi dugu, eta Jaurlaritzak konpromisoa hartu du gu informatuta edukitzeko eta hizketakide bezala gu aintzat hartzeko".

Proiektuak hainbat debagoien-darri kalte egingo diola-eta, hobekuntzak proposatzeko asmoa ere

badu Onbide.org-ek. Bestetik, AP-1ekin gertatu zen bezala, etorri behar dena hartzea da elkartearen jarrera, era berean euren interesengatik borrokatuz: "AHTrekin, AP-1ekin bezala, batzuek alde dauke, beste batzuek aurka, baina, edozein ere, guri kalte egingo digu, eta kalte horiek gutxitzea gura dugu", dio Lasagabasterrek.

AHTren kasuan ere, Eusko Jaurlaritzak konpentsazio-neurri batzuek eman behar dizkie kalte-tuei, eta "horiek gure negoziazioetan sartuko ditugu", berresten du Onbide.org-eko idazkariak.

## KORRIKAN PARTE HARTUKO DUTE

Korrika jaiatzeko ere hitz egin dute Onbide.org-eko bazkideek. Hain zuzen, kilometro bat erosi dute, eta parte hartuko dute lasterketan; Eskoriatzan edo Gatzagan egin erabakitzeke dute. Era berean, Eskoriatzan, Onbide.org-en kamisetak saltzeko denda prestatuko dute egun horretarako.

## Kezka sortu du bidegorriaren proiektuak

Oraingoz, Eibar-Gasteiz autobideak eta Abiadura Handiko Trenak kezkatzen ditu Onbide.org elkarteko bazkideak beste edozein proiektu baino gehiago. Hala ere, kezka iturri berri bat agertu da: bidegorria.

Pedro Lasagabasterrek, Onbide.org-eko idazkariak, esaten digun moduan, bere momentuan, hein baten behintzat, autobidearengatik konpentsatzeko neurri bezala planteatutakoak arduratuta dauzka hainbat debagoiendar: "Ondo iruditzen zaigu bidegorria; baina egin berri duten araudiari begiratuta, arriskuak ere ikusten ditugu. Adibidez, baserriar askok tren zaharraren plataforma sarri erabiltzen dute; batzuek, etxera joateko bide bezala ere bai. Horregatik, erabilera horiek errespetatzea gurako genuke, eta konpartitutako erabilera delakoa aplikatzea zati horietan".

Bere hitzetan, gero eta auzotar gehiagok dute ardura hori, batez ere Eskoriatzatik gorakoek: Gatzagakoek, Maringoek, Mazmelakoek edo Zarimuzkoek, esate baterako.

KALE ERASOA &gt; KALTEEN BALORAZIOA

# La Caixak 250.000 eurotik gorako kalteak ditu

Konpentsazio Aseguruen Partzuergoak oraindik ez du kalteen balorazioa bukatu, baina laster bukatuko dutela jakinarazi du

Erasoan zauritu zen Ambrosio Fernandezek Zainketa Intentsiboko Unitatean segitzen du baina, azken egunotan, hobera egin du

UBANE MADERA &gt; ARRASATE

Urtarrilaren 5ean, La Caixa eta bestelako banketxeen kontrako kale erasoak eragindako kalteen balorazio ekonomikoa bukatzen dabilta. Hala jakinarazi du Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak, perituak lanean dabiltzala oraindik.

Edozelan ere, kalte horien estimazioa eginda daukatela jakinarazi du Ignacio Machetik, partzuergoko arduradunak.

**SALTOKIEK, 30.000TIK BEHERA**

Datuon arabera, La Caixak 250.000 euro inguruko kalteak jasan dituela estimatzen dute: "Bukatu barik dago tasazioa, baina baliteke kopuru hori gainditzea", dio Machetik.

Kutxa eta BBVA banketxeei dagokienez, 6.000tik 9.000 euro arako kalteak dituztela aurrekusi dute; asko jota, 9.000 euroko kalteak izango ditu kutzazain bakoitzak.

Horrez gainera, partzuergoko arduradunak jakinarazi du kalteak izan zituzten bi saltokiek, Umek eta Loramendik, ez dutela gaudituko 30.000 euroko zifra, nahiz eta Loramendi Kirolak dena dezentek kaltetu zen.

**UDALAREN TXOSTENA**

Bestalde, Arrasateko Udalak berak ere oraingo astean bertan aurkeztu du berari dagozkion gastuen zerrenda. Hain zuzen ere, guztira 15.733,19 euro gastatu ditu honako zerbitzuetan: Udal briga-



OBRATAN Kaltetutako eraikina konpontzen ari dira.

JOSETXO ARANTZABAL

da (5.068,04 euro), Hotel Mondragon (4.636,18 euro), Cespa garbiketak (3.400,8 euro), Bereya Elektrizitatea (1.313,56 euro), Gesalibar edukiontzia (1.126,61 euro) eta Buenuena Jatetxea (188 euro).

**ZAURITUA, HOBERANTZ**

Bukatzeke, Ambrosio Fernandez arrasatearra ospitalera eraman behar izan zuten, kea arnasteagatik. Bada, Inazio Lakuntza

## Kalteen estimazioa

KALTETUA	KOPURUA EUROAN
La Caixa	250.000tik gora
Loramendi	30.000tik behera
Ume	30.000tik behera
Arrasateko Udala	15.733,19
Kutxa	9.000, asko jota
BBVA	9.000, asko jota

alkateak jakinarazitakoaren arabera, ZIUn (Zainketa Intentsiboko Unitatean) ingresatuta dago oraindik gizona, "baina, azken egunotan, hobekuntza nabarmena izan du. Altxatzen da ohetik, berba egiten du...". Edozelan ere, gogorarazi du, poliki-poliki, segituko duela hobera egiten, pertsona nagusia delako eta lehenagotik ere bere egoera delikatu samarra zelako.

GIZARTEA &gt; PROTESTA

## Istiluak eta atxilotu bat egon ziren Garibaiko jesarraldian joan den egubakoitzean

Adin guztietako jendeak parte hartu zuen Garibai autoendako ixtearen aurkako jesarraldian

LEIRE KORTABARRIA &gt; ARRASATE

Ertzaintzarekin ika-mikak eta atxilotu bat egon ziren joan den egubakoitzean Arrasaten hainbat herritarrek egindako jesarraldian. Ekintza osoa ezohikoa zen, izan ere, herritarrek eurek deitutako protesta ekitaldia zen, eta e-posta mezuen bitartez zabaldu zen deialdia. Azkenean, ehun lagun inguru batu ziren. Garibai kalea autoendako ixteagatik protestatzeko deitu zen jesarraldia.

**ATXILOKETA**

Tentsio oneak egon ziren batutakoek autobus bati pasatzea

galazti ziotenean. Ertzainak bilkura desegiten saiatu ziren. Herrizaingo Sailak dioenez, emakume batek ez zien ertzainek esandakoei kasu egin eta, segidan, zenbait ertzaini gainera jausi zitzaion. Azkenean, "desobedienciazengatik eta ertzainei eraso egiten saiatzeagatik", atxilotu egin zuten emakumea.

Horrez gain, nahiz eta lelo edo pankartarik ez zuten eraman, Ignacio Lakuntza alkateari zuzendutako oihuak ere entzun ziren. "Alkateak aurpegia eman dezala!" oihukatu zuten bilkura hainbat lagunek.



AUTOBUSA Pasatzera zihoan autobus bati bidea mozten saiatu ziren bildutakoak.

TXOMIN MADINA

HIRIGINTZA > SEMINARIOKO PATIOAN APARKALEKUAK

# Aurten hasi nahi dute Errege Seminarioko aparkalekuak egiten

741.000 eurotan erosiko ditu udalak patioa estatuari eta 220 aparkaleku inguru egingo ditu lur azpian; goiko aldea jolas lekua izango da obrak bukatu eta gero ere

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Errege Seminarioko patioa erostea erabaki zuen udalbatzak eguaztenean egin zuen presazko ez ohiko osoko bilkuran. EAJ, EA, Aralar eta PSEren aldeko botoekin onartu zuen; EB eta PP ez ziren osoko bilkurara joan. Horrela, 741.000 eurotan erosiko dio Seminarioko patioa Udalak Estatuari.

**220 APARKALEKU BERRI**

Patio horretan aparkalekuak egin nahi ditu Udalak, eta ze aukera dauden ikusten hasi da dagoeneko.

Patioan 220 ibilgailuendako aparkalekuak egingo dituzte; bi pisu eraikiko dituzte lur azpian. Goia jolas lekua izango da, orain



APARKALEKUA Patioaren azpian bi solairu egingo dituzte eta 220 ibilgailu inguru sartuko dira.

JOSETXO ARANTZABAL

bezala. "Mugikortasun ikerketak dio 150 aparkaleku falta direla herrian, eta hor gehiago egingo ditugu", esan du Victoriano Gallastegi alkateak.

**GAUR, HITZARMEN SINAKETA**

Errege Seminarioa azpilagatzaren gaineko hitzarmena sinatuko dute gaur, astelehena, udalderetxean, 10:30ean, Joxe Joan Gon-

zalez de Txabarri ahaldun nagusiak; Victoriano Gallastegi alkateak; Juanjo Alvarez UNED Bergarako zuzendariak; eta Angel M. Eguren ikastolako presidentek.

> OSPAKIZUNA

**Udal musika bandak 175 urte betetzen ditu gaur, astelehena**

Bergarako udal musika bandak 175 urte betetzen ditu gaur, otsailak 19. Hori ospatzeko, bandako kideek kalejira egingo dute. 20:00etan irtengo dira San Martin plazatik; *Versalles* martxa joko dute herriko kaleetan zehar.

Urteurrena ospatzeko hurrengo hitzordua martxoaren 25ean da. Gasteizko banda etorriko da frontoira kontzertua eskaintzera. Eta apirilaren 22an, Tolosako bandaren etorriko da. Bilbokoa urtarrilean egon zen.

> ODOL ATERALDIA

**Seminarioan egingo dute eguaztengo odol-ateratzea ere**

Etzi, otsailak 21, da odola ateratzeko hurrengo aukera, eta seminarioko betiko lokalean egingo dute. Odol-emaelek toki hori utzi egin behar dutela jakinek da, baina oraindik ez dute beste leku aproposik aurkitu, eta oraingoz, behintzat, hortxe egingo dituzte datozen odol-ateratzeak. Toki berria zein izango den erabakitzen dutenean, emaele guztiei jakinaraziko diete. Eguaztengo odol-ateratzea 18:00etatik 20:30 arte izango da.



JOSETXO ARANTZABAL

## Umore-Ona elkarteak egubakoitzean inauguratu zuten

Egubakoitzean inauguratu zuten Umore-Ona elkarte gastronomiko eraberritua. Handitu eta berritu egin dute elkarteak. Pianoa ere jarri dute elkarte berrian; izan ere, abesteko zuten zaletasunak bultzatuta sortu zuen elkarte herritar talde batek 1948an. Apaizaren bedeinkapenarekin hasi zuten inaugurazioa, eta elkarte zortzikoak hiru abesti kantatu zituen, Jesus Berroyaren zuzendaritzapean. Luntxa ere izan zuten inauguraziora joan ziren guztiek. Elkarteak giltza berriak ditu orain, eta oraindik jaso ez dituenak bertara joanda eskatu ditzake. Momentu honetan, 103 bazkide ditu Umore-Ona elkarteak, eta horietatik lau emakumeak dira. Hala ere, oraindik badute bazkide gehiagorendako tokia, eta interesa duenak elkartearen bertan eska dezake informazioa.

ARATUSTEAK > MARTITZENEAN ERE JAI

## Karaokea eta su ikuskizuna Aratuste-martitzenerako

Musika eskolako gazteen bandak kalejira egingo du herriko kaleetan

O.E. > BERGARA

Karaokea, DJ festa, kalejira eta su ikuskizuna egongo dira bihar, Aratuste-martitzena ospatzeko.

Arratsaldeko laurak eta laurdenetan karaoke eta DJ fes-

ta hasiko da herriko plazan, San Martin plazan. Musika eskolako gazteen bandak kalejira egingo du 16:30etik aurrera. Musika eskolan bertan hasi eta bukatuko da kalejira, Masterreka, Bideberri, Domingo Irala eta Barrenkaletik zehar ibili ondoren. Iluntzean, 19:30ean, monoziklo eta su ikuskizunekin kalejira egingo dute herrian zehar 0,7 Cabriolas y Diablitos antzerki taldearekin. Bedelkarrek 160 euro emango dizkio koadrila animatuenari.



IKASLEAK Ikastetxeetako umeak irten ziren egubakoitzean.

JOSETXO ARANTZABAL



ALDAKETA Orain Olakuare sartzeko zein irteteko balio duen bidea (argazkian, eskuman) gero irteteko bakarrik izango da.

JOSETXO ARANTZABAL

ZIRKULAZIOA &gt; SEINALE BERRIAK JARRIKO DIRA

# Martxoan aldatuko da Olakua auzoko zirkulazioaren norabidea

Zirkulazioak izango duen aldaketen berri emateko, 30 seinale bertikal erosiko ditu Udalak, eta seinale horizontalak ere jarriko dituzte

MIREIA BIKUÑA &gt; OÑATI

Olakua auzoko zirkulazioa martxo amaiera aldera berrantolatuko dute. San Andres Kooperatibako ordezkariak udaltzaingoarekin batera zehaztu dute auzoko zirkulazioaren antolamendu berria.

SARRERAK ETA IRTEERAK

Zirkulazioaren berrantolaketa-aren ondorioz, Olakua auzoko kale gehienak norabide bakarrekoak izango dira; gaur egun, gehienak bi norabidekoak dira.

Trafikoaren norabidea aldatu ondoren, Olakua auzoak lau sarrera izango ditu: Bidaurretako komenturako sarrera nagusiaren ondoren dagoen bidea; merkataritza gunera jotzen duten bi kaleak, aurrekoa eta atzekoa; eta Olapotoko dorreen azpian dauden garajeetarako sarrera. Azken hori bi norabideko kalea izango dela zehaztu du Kooperatibak.

Hortaz, hortxe egongo da Olakua auzoko irteeretako bat. Beste bi irteerak izango dira Olakua 10-D, 11-D eta 12-D behebarruen

ondotik doan kalea, eta Olakua 1., 2., 3., 4., 5. eta 6. zenbakien ondoko kalea. Behebarru horien aurreko kale guztiek eskuinetik ezkerreko norabidea bakarrik izango dute.

Horrez gain, erreka aldera ematen duen kaleak, zirkuitua osatzeko, ezkerretik eskuinera-ko norabidea izango du.

Bestalde, merkataritza gunearen aldamenen, Legazpirako norabidean, geratzen diren kaleetako zirkulazioak ez du inolako aldaketarik izango.

## Trafikoa moteltzeko elementuak, San Lorenzo auzoan

San Lorenzo auzoko bizilagunek aurkeztutako kexei erantzuna emango die Udalak. Auzotarren kezak entzunda, hainbat aukera aztertu zituen Udalak. Azkenean, Oñatiko beste hainbat kaletan dauden antzera, abiadura moteltzeko elementuak jartzea erabaki da, istripu arriskua gutxituz.

San Lorenzo auzoko erdiko kalea zuzen luze bat da. Bertan, auzotarren pasabide izanagatik, ibilgailuek abiadura handia hartzen dute. Hortaz, kale osoan zehar, lau banda oztopagarri jarriko dira. Gainera, horren berri ematen duten seinale bertikalak jarriko dira. Aipatu seinaleak Girod enpresari erosiko dizkio Udalak, ia 5.300 euro ordainduta.

SEINALEAK

Martxo amaiera aldera martxan jarriko diren aldaketak azaltzeko, seinale bertikal eta horizontalak erosi ditu Udalak; guztira, 30 bat seinale.

Hala, autoak bideratzeko seinaleak, debekatutako norabidea adierazten duten seinaleak, derri-gorrezko norabidea adierazten dutenak eta stop seinaleak erosi dituzte. Seinaleek adierazten duten mezua gidariengana hobeto iristeko, eta sortzen diren zalantzak argitzeko, errepidean bertan seinaleak margotuko dira.

Tokiko Gobernu Batzarrak Olakua zabalaldean erabiliko dituzten seinaleak Lacroix enpresari erosiko dizkio, ia 8.000 euroren truke.

IGOGAILUEN ARAZOA

Olakuako zirkulazioaren norabidea aldatzeko beharra orain hiru bat urte sortu zen. Orduan, Olakuako hainbat behebarrutan igogailuak jarri ziren, eta horrek ikuspena asko murriztu zuen.

IKASTAROA &gt; OTSAILA AMAIERAN HASIKO DIRA

## Hainbat ikastaro, gaztelekuaren eskutik

Capoeira eta didjeridoo ikastaroak antolatu ditu, besteak beste, Oñatiko gaztelekuak, adin guztietako lagunei zuzenduta

M.B &gt; OÑATI

Otsaila 27an eta 28an hasiko dira, hurrenez hurren, gaztelekuak antolatuta, capoeira eta didjeridoo ikastaroak.

Iker Acedo oñatiarra izango da capoeira ikastaroaren irakaslea. Otsailaren 27an hasita, martitzen emango ditu eskolak. Bi ikastaro izango dira: 12 urtetik 17 urte bitartekoendako ikastaroa Zubikoa kiroldegian izango da, eta, 18 urtetik gorakoendako saioak, berriz, Errekalde Herri Eskolan.

Capoeira ikastaroan parte hartu ahal izateko izenemate epea hilaren 23an amaitzen da.

DIDJERIDOO TAILERRA

Australiako didjeridoo instrumentuaren gainerako tailerra izango da otsailaren 28an abian jarriko dena. Ivan Nikolai izango da instrumentu horri buruzko sekretuak irakatsiko dituen.

Eskolak eguazteneko emango ditu, gaztelekuko sotoan. Izenemate epea otsailaren 23an, egu-bakoitza, amaituko da.



CAPOEIRA Zer den ez dakitenendako ikastaroa, gaztelekuan.

GOIENKARIA

&gt; INFORMATIKA

## Eguerditan ikastaroak emango ditu KZGuneak

Oñatiko KZGunearen ordutegia, goizez, 09:00etatik 13:00etara eta, arratsaldean, 16:30etik 20:30era da.

Bada, azkenaldian, ordu horietan ikastaroetara joan ezin duten hainbat lagun eskaerak jaso dira, dituzten aukerez galdezka. Hortaz, eskaera haiei erantzunez, eguerdiko orduetan beste ikastaro batzuk antolatzeko aukera aztertu eta onartu du KZGuneak. Hala, 14:00etatik 16:00etara eta, 14:30etik 16:30era ikastaroak antolatu-ko dira.

Dendariek, gurasoek eta beste hainbat lagun egingo dako eskaerak aintzat hartu ditu Oñatiko KZGuneak.

ARETXABALETA > ESPETXE PASTORALA

# Preso sozial eta politikoei laguntzeko pastoralala sortu dute

Herriko preso politiko eta sozialei bisitak eta babesa emateko taldea sortu dute parrokiaren inguruan; martitzenero elkartzen dira 18:30ean, parrokiako lokalean

**IKER BARANDIARAN > ARETXABALETA**  
Espetxe pastoralak parrokiaren inguruan sortutako lantaldeak dira, espetxetan dauden herritarrei eta haien senideei laguntza eskaintzen dietenak. Arrasaten eta Oñatin, badira espetxe pastoralak, eta, iaiztik hona, Aretxabaletan talde bat osatzen dabilta hainbat lagun.

**MARTUTENE DUTE ABIAPUNTU**  
Pastoralaren helburua da preso- en egoera gizarteratzea, eta preso- ei eta senidatekoei laguntza eskaintzea.  
Gaur egun, espetxe pastoralak Caritasen barruan daude, eta herriko boluntarioek osatzen



BOLUNTARIOAK Pili Sagasta eta Jose Manuel Abete pastoraleko kideak.

JOSETXO ARANTZABAL

dituzte talde horiek. Martutene- ko espetxeko kapilauak koordinatzen ditu laguntza eta premiak. Hain zuzen ere, iaiz kapilaua Aretxabaletan izan zen, espetxe

barruko egoera azaltzen. Hainbat herritarrek kezka agertu zuten horren aurrean, eta talde bat sortzea erabaki zuten. Martitzenero elkartzen dira parrokiako loka-

lean, eta taldea zabalik dute laguntzeko interesa duen edonorendako. Presoei eta senideei bisitak egin, gutunak bidali eta materiala batzen arituko dira.

ARETXABALETA

## Urra eta Errastiren aldeko ekitaldiak

Herriko bi presoak gogoan, zapatuan mendi ibilaldia egin zuten

**I.B.> ARETXABALETA**  
Zapatuan, Kepa Urra eta Zuhaitz Errasti preso politiko- en urtebetetzeak gogoratzeko, hainbat ekitaldi egin zituzten herrian.

Bien urtebetetzeak hilaren 13an izan ziren, Torturaren Kontrako Egunean, hain justu, baina herenegun egin zituzten haien aldeko ekitaldiak. Horren aurretik, baina, egunean, hilak 15, auto karabana egin zuten.

**MENDI IBILALDIA ETA MURALA**  
09:00etan elkartu ziren Mitarten, eta Kurtzeberriko tontorrera abiatu ziren. Handik bueltan, 13:00etan, ekitaldixoa egin zuten Durana kaleko plazatxoan. Han, txalaparta jo zuten, eta bi presoen gaineko murala egin zuten. Gero, luntxa egin zuten.

ESKORIATZA > IPUIN KONTAKETA

## Ipuin kontaketa egingo dute egunean bibliotekan 3 eta 8 urte artekoendako

Donostiako Itziar Iturbe idazlea izango da egunean ipuinak kontatzen bibliotekan; 18:00etan egin dute hitzordua

**I.B.> ESKORIATZA**  
Egunean, hilaren 22an, Itziar Zubizarreta donostiarrak ipuinak kontatuko dizkie 3 eta 8 urte arteko umeei, bibliotekan. 18:00etan izango da ekitaldi hori.  
Ia hilero egiten dituzte ipuin kontaketa, eta oso harrera ona izaten dute. "Orain dela 4 urte biblioteka zabaldu genuenetik, halakoak egiten dihardugu, eta umeek eta gurasoek hara joateko ohitura hartu dute", azaldu ziguten udal bibliotekako arduradunek.

**EUSKARAZKO KONTAKETAK**  
Donostiako Itziar Iturbe ezaguna da, umeendako hainbat liburu argitaratu dituelako eta aspalditik umei ipuinak kontatzen ere aritzen delako. Horrez gain, hainbat urtetan, Itziar Iturbe Arrasa-



ARRETAZ Umeek arreta handiz entzuten dituzte ipuinak.

IKER BARANDIARAN

teko helduen liburutegiko Literatur Solasaldietako arduraduna ere izan da.

Aurreko asteotan, herriko ikasleendako jardunaldi bereziak egin dituzte. Jardunaldi horie-

tan, udal bibliotekan, Euskal Herriko hainbat idazle, ilustratzaile eta poeta ezagunek esku hartu dute: Jesus Mari Olaizola Txiliku-k, Juan Cruz Igerabidek eta Pello Añorgak, besteak beste.



'LA ESPERA' Antzezlaneko aktoreak.

OIHULARI KLOWN

ESKORIATZA > 'LA ESPERA', EGUBAKOITZEAN

## Oihulari Klownen 'La Espera', Inkernu tabernan

Emakumezkoen rol pasiboari eta hezkuntza haren kontu barre egingo dute klownek

**I.B. > ESKORIATZA**  
Datorren egubakoitzean, hilaren 23an, Oihulari Klown taldeak *La Espera* ikuskizuna egingo du. Aitzorrotz kultur elkarteak antolatuta du, eta Inkernu tabernan egingo dute. 22:30ean izango da.

Oihulari Klown talde beterranoa eskoriatzarren aspaldiko lagunak dira. Askotan aritu dira HUHEZIKo aretoan, eta baita Inkernu tabernan ere. Beste askotan, Oihularikoen

lagun diren Euskal Herriko eta Espainiako beste talde batzuk eramaten dituzte, herrira ikuskizunak egitera.

**EMAKUME PASIBOA**  
*La Espera* ikuskizunean askotan saltzen zaigun emakumezkoen rol pasiboari kritika eta ironia ezarriko diote Oihulari Klowneok.

Hezkuntza arkaiko horren lepora, barre egingo dute eurek eta ikusleek.

ARAMAIO &gt; ABIADURA HANDIKO TRENA

## Lotsa eta haserrea, AHTren gaineko ekitaldia dela-eta

Abiadura Handiko Trenaren kontrako taldeak salatu du joan den astelehenean Aramaion egin zuten informazio ekitaldia "lotsagarria" izan zela

UBANE MADERA &gt; ARAMAIO

Joan den astelehenean, Aramaion izan ziren Jaurlaritzako ordezkariak Abiadura Handiko Trenaren gaineko azalpenak ematen.

Bada, AHTren kontrako Aramaio taldeak hainbat salaketa egin ditu ekitaldi horren harira.

**"IHES EGITEN SAIATU DIRA"**

Hala, batetik, salatu nahi dute 15 urtez egon direla proiektu horren gaineko informazioa eskuratu nahian, eta Jaurlaritzakoak Aramaion izan ziren arren, ez zutela "batere" informaziorik eman: "Ez

omen dute Aramaio azken trazaduraren proiekturik, ez dakite nondik pasako den beraien Abiadura Handiko Trena, ez dute erantzunik. Ez dute lotsarik". Zera ere gaineratu gura izan dute: "Galderak izan ziren nagusi, herritarren kezka bizia delako. Baina erantzun bakoitzaren aurrean ihes egiten saiatu ziren; beraien ardura onartu beharrean, Madrilen hau eta Madrilen hori esaka ibili ziren".

**POLIZIA MORDOIA**

Horrez gainera, egun horretan Aramaio inguruan polizia uga-

ri izan dela-eta, kexua helarazi nahi dute: "Barruan halako ikus-kizun penagarria jasan genuen bitartean, kanpoan bestelakoa. Sarrera-irteeretan, guardia zibilaren kontrolak; plazan, kale jantzitako polizia piloak; eta estrategikoki kokatuta, badaezpada, beltzez jantzitako ertzainen furgonetak".

**HERRI GALDEKETA**

Bestalde, proiektu horren gaineko herri galdeketa antolatzen zebilen taldea apurtu egin den arren, AHTren kontrako taldeak argi du egin egingo dutela galdeketa: "Aramaio herriak AHTren gainean erabakiko du, horrela nahi dutelako herritarrek, hori delako, hemen eta edozein lekutan, demokraziaren oinarria. Herri Kontsulta egingo dugu eta, Lakuako gobernuarena demokrazia balitz, herriaren erabakia errespetatuko lukete".

Bukatzeko, gogorazi gura dute martitzenean, hilaren 21ean, tren horrek egingo duen kaltearen gaineko hitzaldia egingo dutela Aramaion. Inaki Antiguada geologoak eta EHNE sindikatu-kide batek egingo dute berba, 19:00etan, kultura etxean.

ELGETA &gt; KORRIKA BATZORDEA ERATU DA

## Kilometroak salgai daude dagoeneko 380 eurotan

12 euroren truke, Korrika laguntzaile egiteko aukera dago Haizean, Espaloian eta Elgetako gaztetxean

LARRAITZ ZEBERIO &gt; ELGETA

Eguaztenean egin zuten Elgetan Korrikaren etorreraren gaineko lehenengo bilera. Euskararen aldeko lasterketa martxoaren 25ean, domeka, igaroko da herri-tik. Goiz etorriko da Korrika, 08:30 aldera. Kontuan hartuta egun berean Intxortako Atea izeneko ekitaldia dagoela aurreikusita Elgetan, batzordean erabaki zuten martxoaren 25ean herri gosaria besterik ez egitea.

Ekitaldi potoloak hurrengo egunerako, martxoaren 26rako utziko dira, besteak beste, Korrika Txikia.

Batzordea martxoaren 26an zein ekitaldi egin aztertzen ari da. Ziurrenik, umeei zuzendutako ekintzak antolatuko dituzte. Hurrengo bilera martxoaren 1ean egingo dute, 19:30ean, udaletxean, horretaz hitz egiten jarraitzeko.

**KILOMETROAK SALGAI**

Korrikak bost kilometro egingo ditu Elgetan. Kilometroak dagoeneko salgai daude 380 eurotan. Korrika batzordeko kideek herriko elkarte eta lantokietara joko dute datozen egunotan, ahalik eta diru gehien batzeko.

Elgetako Udalari ere diru-laguntza handiagoa eskatzen dio batzordeak. Izan ere, duela bi urte, 3.000 euro eman zituen Udalak, eta aurten, 1.000 euro besterik ez ditu eskaini Korrikarako. Korrika batzordeak kopuru hori txiekia dela baloratu du.



TALDEA Pilotariak entrenatzailearekin eta alkatearekin.

MIRARI ALTUBE

LEINTZ GATZAGA &gt; PILOTA

## Arropak aurkeztu zituzten pilotari gazteek txapelketan

Amurrioko pilotarien aurka lehiatu ziren egubakoitzean, kamiseta eta jertse berriekin

L. KORTABARRIA &gt; LEINTZ GATZAGA

Pozik daude antolatzaileak, umeak eta gurasoak joan den egubakoitzean Gatzagako eta Amurrioko taldeen arteko pilota txapelketarekin. Hala, Jose Ignazio Belokik, Gatzagako taldeen entrenatzaileak, "oso giro polita" egon zela eta "umeak oso gustura" ibili zirela esan du.

Alebin, benjamin, infantil eta jubenet mailletako 14 jokalari hartu zuten parte, eta taldeen kamiseta eta jertse berriak aurkeztea zen helburu nagusia. Zortzi partidu jokatu zituzten, eta bi etxekoek irabazi zituzten.

Orain hurrengo, bueltako partiduak jokatu dituzte Amurrion. Egubakoitz baten

izango dira horiek, baina oraindik ez dute erabaki noiz.

**UDALA, LABIDEA ETA SORMEN**

Jose Ignazio Belokiren esanetan, txapelketa "aspaldik zegoen hitzartuta, baina kamisetak eta kirol-jertseak geneuzkan eskatuta mutikoendako, eta horien zain geunden".

Udalak eman dizkie kamisetak, eta Labidea dendari eta Sormen enpresari esker lortu dituzte kirol-jertseak. Amurrioko mutikoen entrenatzaileekin egin zuten tratua lehenengo partiduak Gatzagan jokatzeko, eta azkenean, txapelketa joan den egubakoitzean jokatu zuten, 17:30ean hasita.

ANTZUOLA &gt; EZKER ABERTZALEAREN EKITALDIA

## Udalean parte hartu nahi du ezker abertzaleak

Euren eskubideak berreskuratzeko beharra nabarmendu du herriko ezker abertzaleak

LEIRE KORTABARRIA &gt; ANTZUOLA

Herritar mordoxka baten babesarekin egin zuen herriko ezker abertzaleak Orain Antzuolan ezker abertzalea izeneko ekitaldia herenegun, zapatua, Zurra-tegin. Euren helburua jakinarazi dute: "Antzuolako pertsona anitz jada lanean gaude, herri honetako benetako beharrei begira eta herriarentzat eginiko pro-

grama bat Udalera eramateko asmoz". Taldearen bozeramaile lanetan aritu ziren Iraia Gabilondo eta Patxi Kabo.

**"UDALA EZ DA HERRIARENA"**

Lehenengo, euren egoera gogorazi zuten: "Ezker abertzalea Udaletik zeharo baztertua izan da. 2003ko udal hauteskundeetan ondoren, herriaren zati handi bat

eskubide politikorik gabe gelditu zen"; eta Udalaren politikaren eta herritarren nahien artean ikusten duten "izugarritzko hutsunea" salatu zuten. "Herritarren eskakizunak ez dira kontuan hartu, eta, gaur egun, Udala ez da herriarena", esan zuten.

"Inoiz baino beharrezkoagoa da demokrazia Udalera itzultzea", jarraitu zuten. "Udal parte-hartzaile" baten sinisten dutela gaineratu ondoren, "indarrak biltzeko garaia" dela esan zuten ezker abertzaleko kideek.



HIZLARIARIK Iraia Gabilondok eta Patxi Kabok hitz egin zuten ezker abertzalearen partetik.

JOSETXO ARANTZABAL

# Kirola



> **FUTBOLA**  
BTLsko neskek berdindu egin dute Zarautzen aurka Ipintzan > 18



> **ESKUBALOIA**  
Bergarak 27-26 irabazi dio Arrasateri ibarreko derbia > 19



> **SASKIBALOIA**  
Mugarri Alkesak samur irabazi dio Zornotzari Iturripen > 20



> **KROSA**  
Yerai Varela hirugarren sailkatu da Euskadiko txapelketan > 21



ZORTZI KALE Agorrosingo igerilekuko zortzi kaletan jardun dute igerian Gipuzkoako 21 elkartetako gazteek.

JOSETXO ARANTZABAL

**IGERIKETA** > UME ETA GAZTEEN GIPUZKOAKO IGERIKETA TXAPELKETA

## Bergarako eta Oñatiko gazteek maila ona erakutsi dute igerian

### EUSKADIKOAK

Datorren astean eta martxoaren 3an eta 4an izango dira Euskadiko txapelketak

### 21 ELKARTE

Gipuzkoa osoko 21 elkartetako haurrak aritu ziren atzo Agorrosinen igerian

**ARANTZAZU EZKIBEL** > BERGARA  
Bergarako igeriketa taldeak 35. urteurrena ospatzeko modu bikaina izan du aste bukaeran. Zapatuan eta domekan, Bergarako 12 neska-mutiko eta Oñatiko beste hainbat ibili ziren Agorrosingo igerilekuan.

### IBARREKOEN EMAITZAK, ONAK

"Orokorrean, nik uste dut emaitza onak izan direla", adierazi zigun Amaia Andueza Bergarako igeriketa taldeko arduradunak. Gipuzkoako txapelketan, igerilari askoren helburua Espainiako txapelketa jokatzeko gutxieneko emaitzak egitea izaten da. Hala, Agorrosinen, emaitzak onak izan ziren.

Amaia Anduezak, baina, zera ere esan digu: "Espainiako txapelketan prestatzen ari diren igerilariak ez dute euren maila one-

na ematen garai honetan". Onen emaitza onenak ez ziren ikusi, beraz, Agorrosinen.

Oñatiko Aloña Mendi elkarteko igerilarien artean, Ander Zarketak lortu zuen emaitza onena. Oñatiar igerilari gazteak, 200 metro bizkar eran, urrezko domina lortu zuen. Gainera, Espainia-

ko txapelketan parte hartzeko gutxieneko emaitza ere badauka Aloña Mendiko igerilariak: 02:19:10.

Oñatiarrentzat bigarren domina Oier Ibabek lortu zuen, igerilari oñatiarrak 400 metro estilo proba hirugarren postuan amaitu zuen-eta.

### ZAZPI DOMINA, ETXEAN

Etxeko igerilariak hamaika domina eskuratu zituzten: Peru Alustiza (100 m. tximeleta, 50 m. tximeleta eta 200 m. estilo), Nielka Iburguren (200 m. braza, 400 m. estilo eta 100 m. braza), Irati Fernandez (50 m. braza, 100 m. braza eta 200 m. braza) eta Mikel Labaka (100 m. libre eta 50 m. libre) izan ziren Agorrosinen dominaren bat eskuratu zuten Bergara igeriketa taldeko igerilariak.

DATUA

# 13

DOMINA

13 dira ibarreko igerilariak Gipuzkoako Txapelketan lortu dituzten dominak. Urrezkoak hiru izan dira: Ander Zarketa oñatiarrarena eta Mikel Labaka eta Peru Alustiza bergararrarena.

Etxeko hainbat igerilariarentzat, Gipuzkoako txapelketa Agorrosingo igerilekuan lehiatzeko lehenengo aukera izango da. "Abenduan, Euskadiko txapelketa jokatu genuen Agorrosinen, baina orduan ez zuten denek parte hartzeko aukera izan", esan digu Anduezak. Aurtengo hurrengo proba irailean jokatu delako aurreratu digu Amaia Anduezak.

Datorren astean, Euskadiko txapelketa jokatu du Urki Iburguren bergararrak. Martxoaren 3an eta 4an, Labakak, Alustizak, Iburguren anaiek, Iñarrak eta Fernandezek jokatu dute Euskadiko txapelketa.

Gipuzkoako txapelketaz gain, asteburuan Bergara igeri taldeak 35. urteurrena ospatzeko argazki erakusketa ipini du Agorrosingo lehenengo solairuan.



### BIGARREN MAILA NAZIONALA

**Goiko ilaran, ezkerretik hasita:** Beñardo Balerdi (entrenatzailea), Asier Valle, Eneko Garcia, Iker Otegi, Andoni Bernal, Joseba Arrese-Igor, Iker Murillo, Igor Egaña eta Fernando Rodriguez (entrenatzailea).  
**Behoko ilaran:** Jonan Eskibel, Oier Ortiz de Zarate, Xabier Altzelai, Arkaitz Masip, Pello Olaberria, Aitor Garcia, Rafa Zulueta, Nestor Calleja eta Juan Luis Isasmendi (delegatua). Argazkian...





# Eskubaloi Taldea 06-07



(matzailea).  
Kepa Isasmendi, Aitor Eskibel eta Garikoitz Arregi falta dira.

LEHENENGO TERRITORIAL MAILA



KADETE MUTILAK



KADETE NESKAK



**IKER**

Bainu altzariak

**NATUR HOUSE**

Dietetika eta Elikadura

**Markiegi**

**CHAPIME  
TAILERRAK  
SCL**

**CITROËN**

EMAKUMEZKOEN IGOERA FASEA &gt; 3. JARDUNALDIA

# Balio handiko puntua eskuratu du BTLSk Zarautzen aurka

Etxeko jokalariek partidua hasiera-hasieratik kontrolatu bazuten ere, gola egitea falta izan zitzairen hiru puntuak eskuratzeko

ARANTZAZU EZKIBEL &gt; BERGARA

BTLSk neskek ontzat ematen dute zapatuan Zarautzen aurka lortutako puntua (0-0). Bergararrak liderrak dira igoera faseko ligan, orain arte jokatutako hiru partiduetatik bi irabazi eta zapatukoa berdindu egin dute-eta. Zarautzek, berriz, bi partidu berdindu eta bakarria irabazi du. Horiek sailkapenean bigarrenak dira, BTLs taldearengatik bi puntutara.

LEHENENGO ZATIA, OREKATUA

Lehia nahiko orekatua izan zen lehenengo zatian. Bergarako neskek gogotsu atera ziren, eta hainbat gol aukera egitea lortu zuten. Zelai erdiaren jabetza etxekoena izan zen eta, hala, erasora indarrez atera ziren. Izandako aukerak, baina, ez ziren gauzatu, eta atsedenera husnako berdinketarekin iritsi ziren.

Bigarren zatian, gauzak berdintsuak izan ziren. Etxeko neskek gehiago izan ziren, eta baloia-



GOLIK EZ Aukera politak izan arren, gola falta izan zitzairen etxekoei zapatuan.

JOSETXO ARANTZABAL

ren jabetza izan zuten. Zelai erdiko lanean, ondo aritu ziren eta, erasora ateratzeko gai izan arren, zortea ez zuten aldeko izan: gol aukera bat bera ere gauzatzeko gai ez ziren izan bergararrak.

Norgehiagokaren azken minutuetan, Zarautzek etxeko taldea estutzea lortu zuen. Hala, falta jaurtiketak izan zituzten

alde. Bazirudien zarautzarrek gola egin eta hiru puntuak eramango zituztela, baina, azkenean, ez zen hala izan, lehia berdinketarekin amaitu zen-eta.

ZARAUTZ, USTE BAINO GUTXIAGO

Zarautz talde gogorra da; hala ere, zapatuan, Ipintzan, ezer gutxi erakutsi zuten. Futbol zelaiaren

egoerak ere ez zuen askorik lagundu, norgehiagokan zehar egin zuen euriak zelai putzuz beteta utzi zuen-eta.

Datorren astean, BTLSkoe Vasconiaren zelaira egingo dute bisita. Horiek sailkapeneko bosgarren postuan daude; beraz, lehia samurra izan beharko luke honek bergararentzat.

PREFERENTE MAILA &gt; 22. JARDUNALDIA

# UDaren partidua bertan behera, bost jokalarikaleratuta

MIREIA BIKUÑA &gt; BERGARA

Federazioak erabaki beharko du Hondarribiaren eta UDaren arteko partidurekin zer gertatzen den. Izan ere, zapatuko lehia bertan behera geratu zen bigarren zatiko 15. minutuan, UDA sei jokalarirekin geratu zen-eta. Epaileak Aretxabaletako bost jokalarik egozti zituen. "Inoiz ez dut halakorik ikusi futbol zelai batean", adierazi zigun, harrirituta, UDAko presidentea, Jokin Antxiak.

Lehenengo zatian, Raul Sanchez egotzi zuen epaileak, eta bigarrenan, Igor Arenatza, Gaizka Heriz atezaina, Ruben Leonardo eta Arkaitz Garai. Halakoetan, gutxienekoa emaitza izaten da.

MONDRAK ETA ALOÑAK, IRABAZI

Preferente mailako 22. jardunaldian, emaitza onak lortu zituzten Mondrak eta Aloñak.

Sailkapeneko goiko postuetan, beraiekin lehiatzen dagoen taldea menderatu zuen Mondrak, izan ere, 1-3 nagusitu zitzaion Anaitasunari. Hala, sailkapeneko laugarren tokian daude arrasatearrak, 36 punturekin.

Aloñak ere garaipen garrantzitsua lortu zuen, sailkapeneko azkeneko tokietan dauden taldeekin duen tartea zabaltzeko. Zumaragan, Urola mendean hartu zuten, 0-2 emaitzarekin. Orain, Aitor Oruetaren taldea 10. dago sailkapenean, 29 punturekin.



UDA-HONDARRIBIA Argazkia iazko partidukoa da.

ARTXIBOA

## emaitzak eta sailkapenak

## PREFERENTE MAILA

Sailkapena	Puntuak	JP
1. Zarautz	47	22
2. Hernani	41	22
3. Berio	37	22
4. Mondra	36	22
5. Ordizia	35	22
6. Zestoa	34	22
7. Anaitasuna	32	22
8. UDA	30	22
9. Trintxerpe	30	22
10. Aloña Mendi	29	22
11. Touring	29	22
12. Ondarroa	27	22
13. Hondarribia	27	22
14. Pasaia	22	22
15. Idiazabal	20	22
16. Mutriku	18	22
17. Urola	16	22
18. Martutene	16	22

## Emaitzak

Hondarribia-UDA	1-1
Hernani-Ordizia	2-1
Pasaia-Aurrera	2-2
Martutene-Zestoa	1-2
Urola-Aloña Mendi	0-2
Mutriku-Zarautz	2-3
Touring-Trintxerpe	0-1
Anaitasuna-Mondra	1-3
Berio-Idiazabal	3-0

## Hurrengoak

Ordizia-Hondarribia	
Aurrera-Hernani	
Zestoa-Pasaia	
Aloña Mendi-Martutene	
Zarautz-Urola	
Trintxerpe-Mutriku	
Mondra-Touring	
Idiazabal-Anaitasuna	
UDA-Berio	

## BESTELAKOAK

## LEHENENGO ERREGIONALA

Bergara	atsedena
---------	----------

## BIGARREN ERREGIONALA, IGOERA

Ikasberri-BTLs	1-1
Antzuola-Gazteak	5-0
Elgeta-Mariño	2-0

## BIGARREN ERREGIONALA, KOPA

Zestoa-UDA	2-1
Mondra-Eibartarrak	4-1

## EMAKUMEZKOAK, IGOERA

Tolosa-Mondra	1-0
BTLs-Zarautz	0-0

## EMAKUMEZKOAK, KOPA

UDA-Urola	4-2
Aloña-Anaitasuna	0-1

## OHOREZKO GAZTEAK, IGOERA

Beasain-Aloña Mendi	6-1
Mondra-Anaitasuna	4-0
Kostkas-UDA	2-2

## OHOREZKO GAZTEAK, KOPA ETA JAITSIERA

Bergara-Amaika Bat	2-0
--------------------	-----

## LEHENENGO MAILAKO GAZTEAK, IGOERA FASEA

UDA-Beasain	2-0
-------------	-----

## LEHENENGO MAILAKO GAZTEAK, KOPA

Arrasate	atsedena
Bergara	atsedena
Antzuola	atsedena

## OHOREZKO KADETEAK, IGOERA

UDA Arizmendi-Kostkas	5-2
Real Union-Bergara	0-0

## OHOREZKO KADETEAK, KOPA ETA JAITSIERA

Sanse-Arrasate	3-0
Aloña-Beasain	-

## OHOREZKO INDATILAK, IGOERA

UDA Arizmendi-Sanse	5-1
---------------------	-----

## OHOREZKO INFANTILAK, KOPA ETA JAITSIERA

Touring-Aloña Mendi	1-1
Arrasate-Sto. Tomas Lizeoa	-

LEHENENGO TERRITORIALA > LIGAKO 15. JARDUNALDIA

# Bergarak igoera faserako txartela lortu du, Arrasateri ozta-ozta irabazita

Aratusteak ondo ospatzeko aitzakiarekin, ezohiko hitzordua izan zuen lehenengo territorialeko derbiak, egubakoitzean jokatu zen eta

BERGARA

27-26

ARRASATE

**Bergara** > Kapelastegi, Uribe, Agirre (1), Sanchez (3), Pozo (1), Garcia (3), Ugartetxe, I. Najera, Errasti, X. Najera, Lenisoro (2), Ugalde (5), Manuel (5) eta Plazaola (7).

**Arrasate** > Sarrao (2), Herrero (5), Etxeberria (8), Oyanguren, Arrese (5), Urtzelai (5), Penas (1), Letona eta Aranburuzabala.

**Golak** > 4-5, 8-9, 10-10, 12-11. Atsedena. 14-12, 16-15, 19-19, 21-22, 23-24 eta 27-26.

sailkapenaren azkeneko postuetan daude, zortzigarren, hain zuzen ere.

Labegaraietan, baina, bergarrek ez zuten sailkapenean duten nagusitasuna erakutsi. Azken minutuan eta ozta-ozta nagusitu ziren mahoneroak egubakoitzeko derbian.

**MARKAGAILUAN, ATZETIK**

Bergara markagailuan atzetik izan zen lehia guztian; 23. minutuan lortu zuten etxekoek arrasatearren aurretik jartzea (10-9). Markagailua alde zutela, Bergarak partidua aurrera erraz aterako zuela ematen zuen, baina gauzak ez ziren hala izan. Bigarren zatiko 10. minuturako, Arrasatekoak aurretik jarri ziren, eta Bergarak, 25. minutura arte, ez zuen lortu berdintzea (24-24).

Arrasatekoek gaizki ateratako baloi luze bat lapurtu eta, kontraerasoan, Manuelek Bergara aurretik jartzea lortu zuen (25-24). Azkenean, tarteari eutsi zioten eta 27-26 nagusitu ziren etxekoak. Aratusteak ondo ospatzeko aitzakia badute mahoneroek.



DEFENTSAN, GAIKIZI Bergarak zailtasunak izan zituen Arrasatekoen eraso gelditzeko.

A.E.

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Bergarak igoera fasea jokatzeko txartela eskuratu zuen egubakoitzean, Labegaraietan, Arrasateko taldeari 27-26 irabazita. Lehia uste baino estuagoa izan zen; izan ere, bergararrak lehenengoak dira sailkapenean, orain arte jokaturako partidu guztiak irabazita. Arrasatekoak, aldiz,

EUSKADIKO TXAPELKETA > FORD MUGARRI-ESCOLAPIOS

# Berdinketa gazi-goza lortu zuen Ford Mugarririk Escolapiosen aurka

Partiduaren une gehienetan atzetik joan ostean, 27 goleko berdinketa erdietsi zuten Arrasatekoek

KOLDO CARRILLO > ARRASATE

Partidu lehiatua izan zen Ford Mugarririk eta Escolapios bilbotarrek zapatuan Iturripen jokatu zutena. Azken segundora arte, ez zegoen argi zein taldek lortuko zuen garaipena, baina berdinketa izan zen bukaerako emaitza.

**AURRETIK DENBORA LABURREZ**

Norgehiagokari indarrez ekin zion talde arrasatearrak, 3-0 goleko errentarekin, eta Escolapios, bi minutu beteak ez zirela, lehen hutsartea eskatu zuen. Orduan hasi ziren etxeko jokalariek erasoan baloiak galtzen, eta bilbotarrek ederto aprobetxatu zituzten arerioen hutsak.

Horrela, kontraerasoet baliatuz, Escolapiosk lau goleko ber-

dinketa lortu zuen eta, aurrerantzean, markagailuan agintzen joan zen.

Bi taldeek joko trabatua erakutsi zuten partiduan zehar, baina bilbotarrek uneoro aurretik ziren. Atsedenera 10-14ko emaitzarekin iritsi ziren.

Bigarren zatian, Ford Mugarririk bere akatsak zuzendu eta, 5 eta 1eko defentsarekin, bilbotarren eraso geldiarazi zuen. Markagailuan hurbiltzea lortu zuten etxekoek, eta bukaerarako bost minutu falta zirela, 24-25ekoa zen emaitza.

Azken minutuetan, arrasatearrek bi jokalarik gutxiagorekin eutsi behar izan zuten, eta partiduen amaieran puntu gazi-goza bat lortu zuten.



ONENA Bernal izan zen golegile nagusia, zazpi golekin.

JOSETXO ARANTZABAL

emaitzak

MAILAZ MAILA

**BIGAREN MAILA NAZIONALA**

Ford Mugarririk-Seyce Escolapios 27-27

**EUSKADIKO GOREN MAILA**

Verkol Aloña atsedena

**LEHENENGO TERRITORIALA**

Bergara-Arrasate 27-26

**GAZTE MUTILAK**

Aloña Mendi-Ereintza 36-35

Bergara atsedena

**GAZTE NESKAK, UDABERRI SARIA**

Verkol Aloña atsedena

**KADETE MUTILAK**

Aloña Mendi-Urola Lazti 52-31

Gatz Museoa Jakion-Ereintza 18-43

**EUSKADIKO TXAPELKETA, KADETE**

**NESKAK**

Verkol Aloña-Cocina Aiala 19-30

**KADETE NESKAK, UDABERRI SARIA**

Arrasate-Aitxuri 9-20

LEHENENGO MAILA &gt; IGOERA FASEA

# Arazo barik irabazi zuen Mugarri Alkesak

Igoera faseko azken sailkatuaren, Zornotzaren aurkako partidua, hasieratik bukaera arte menderatu zuen Arrasateko taldeak

MUGARRI ALKESA

## 93-74

ZORNOTZA

**Mugarri Alkesa** > Jagoba (16), Ander, Mallabi (10), Gorka, Kintana (20), Alartzia (7), Iker (10), Iñigo (22), Paul (1), Urtubi (5), Xabi eta Urtzi (2).

**Zornotza** > Marroquin (2), Muñoz (6), Herros (7), Martínez (8), Fernandez (14), Makatzaga (6), Dominguez (13), Fernandez (11) eta Diego (4).

**Laurdenetako emaitzak** > Lehenengo laurdena: 27-10. Bigarren laurdena: 48-27. Hiru laurdena: 73-48. Laugarren laurdena: 93-74.

MIREIA BIKUÑA &gt; ARRASATE

Igoera fasea bigarren tokian amaitzeko, irabazi beharreko partidua zen zapatuan Mugarri Alkesak Zornotzaren aurka jokatu zuena, Bizkaiko taldea sailkapeneko azkeneko tokian dagoen taldea baita.

Hala, arrasatearrek ez zuten hutsik egin, eta, norgehiagoka

hasieratik kontrolatuta, garaipena eskuratu zuten.

GARAIPEN EROSOA

Mugarri Alkesak eta Zornotzak zapatuan jokatu zuten partidua emozio gabekoa izan zen. Lehenengo laurdenetik, markagailuan abantaila hartu zuen Gorka Zurutuzaren taldeak: 8-0. Zornotza taldeari hiru minutu kosta zitzaion lehen saskiratzea lortzea. Horregatik guztiagatik, lehen tartearan amaieran, 17 puntuko aldea zuten etxekoek: 27-10.

Bigarren laurdenean, abantailari eustea lortu zuten arrasatearrek. Edozelan ere, atsedenera iritsi aurretik, 21 puntutan zabaldu zuten markagailuko errenta: 48-27 zen une horretako emaitza.

Emaitza horrekin, azkeneko bi laurdenak nahiko aspergarriak izan ziren ikusleendako. Hirugarren tartean, gehienez ere, 32 puntuko abantaila izan zuten arrasatearrek, baina errenta dezente murriztu zuten bizkaitarrek azkeneko tartean. Hala, amaierarako, zertxobait txukundu zuten markagailua.



ERASOA Huts gutxi egin zituen erasoan Mugarri Alkesak. Argazkian, Jagoba Gamarra baloiarekin.

JOSETXO ARANTZABAL

AURPEGI BERRIAK

Gazte mailako taldeak Donostian zuten partidua tarteko, lau baja izan zituen zapatuan Gorka Zurutuzak: Imanol Zeziagak, Beñat

Barberenak, Antxon Hernandezek eta Aitor Zeziagak ez zuten jokatu. Haien tokiak betetzeko, senior mailako Gipuzkoako txapelketa jokatzen duen taldeko lau jokala-

ri deitu zituen entrenatzaileak. Hala, Ander Zeziaga, Iñigo Urtubi, Xabier Merino eta Urtzi Rodriguez izan ziren zapatuko partiduko aurpegi berriak.

EUSKAL LIGAKO NORGEHIAGOKA

## Azken jaurtiketa librearekin irabazi zuen Mugarrik Donostian: 93-94

A zer nolako garaipena eskuratu zuten Jose Mari Baltzategi eta Javier Zurbanoren mutilek zapatuan, Easo A taldearen aurka. Emozio eta tentsio handiko partidua izan zen. Beñaten baja izan arren, laugarren laurdenaren hasieran, 12 puntuko errenta zuen Mugarri Alkesak: 62-74. Edozelan ere, amaitzeko segundu hamarren bat falta zela erabaki zen norgehiagoka. Une horretan, Easo A taldeak puntu bateko abantaila zuen markagailuan: 93-92. Epaileek bi jaurtiketa libre adierazi zituzten arrasatearren alde, eta Antxon Hernandezek ez zuten hutsik egin.

Hala, arrasatearrek Euskal Ligako hirugarren garaipena jarraian eskuratu zuten.

Hortaz, amets egiten hasteko garaia iritsi zaio Mugarri Alkesako gazte mailako taldeari. Orain arte, Euskal Ligan jokatutako hiru partidua irabazi ditu.

Aste bukaeran, lehia borrokatua jokatuko dute orain arte partidurik galdu ez duten Mugarri Alkesa eta Santurtzi taldeek. Azken hori Lagun Aro Bilbao Basket taldeko gazte mailako taldea da.

Partidua domekan jokatuko da Iturripen, arratsaldeko 6etatik aurrera.

GAZTE NESKAK &gt; 3. JARDUNALDIA

# Azken uneko tiro libreei esker irabazi zuen Bergarak

KORTAZAR TABERNA TXIRRITA

## 39-37

KRAFFT ATCO. SN. SN

ARANTZAZU EZKIBEL &gt; BERGARA

Bederatzi segundo falta zirela irabazi zuten lehia Bergarako gazte mailako neskek (39-37). Bi tiro libre izan zituzten alde, eta ez zuten aukera alperrik galdu.

Orokorrean, nahiko lehia txarra izan zen Mariaren Lagundiako kantxan zapatuan jokatutakoa. Etxekoek ondo hasi zuten lehia baina, denbora aurrera joan

ahala, intentsitatea galdu zuten. Bergarako entrenatzaile Jokin Perezek adierazi digunez, lesioak tarteko, jende gutxiarekin ari dira lanean, eta horrek eragin zuzena izan zuen zapatuko partiduan.

SASKIRATZE BAKARRA

Lehenengo laurdenean, Bergara ondo aritu zen defentsan; hala, saskiratze bakarra izan zuten kontra (8-2). Bigarren laurdenean, Bergarakoak ondo aritu ziren, bai erasoan eta bai defentsan, baina donostiarrak euren jokoa nabari hobetu zuten eta, bide batez, markagailua zerbait txukuntzea lortu zuten. Atsedenera 21-15 aurretik iritsi ziren etxekoak.



GAINBEHERA Bergarak erritmoa jaitsi zuen zapatuko lehian.

JOSETXO ARANTZABAL

Hirugarren laurdenean, Donostiako taldeak aldea murriztea lortu zuen: 31-28. Hala, azken laurdenean erabaki zen guztia. Etxeko taldeak joko txarra egin zuten; taula azpian huts asko egin

zituen. Donostiarrak aurretik jarri ziren. Partidua amaitzeko minutu bat falta zela, etxekoak puntu bat atzetik ziren baina, azkenean, bi tiro libre sartu eta partidua irabazi zuten bergararrek.

emaitzak

MAILAZ MAILA

SENIOR MUTILAK

Candy	atsedena
Ointxe Arrasate	atsedena
Aloña Mendi	atsedena

SENIOR NESKAK

Eskoriatza	atsedena
Aloña Mendi	atsedena

GAZTE MUTILAK,

EUSKADIKO TXAPELKETA

Easo A-Mugarri Alkesa	93-94
-----------------------	-------

GAZTE MUTILAK

Aloña Mendi	atsedena
-------------	----------

GAZTE NESKAK

Kortazar-Txirrita-Krafft Atco. Sn Sn	39-37
Eskoriatza	atsedena

KADETE MUTILAK

Ford Mugarri-Ordizia	72-78
Bergara-Gros Xake	37-40
Aloña Mendi-GSB Acero	20-66

KADETE NESKAK

Zarautz-Eskoriatza	40-32
--------------------	-------



UARKAPE Ruen Diaz gasteiztarra, boulder ariketa egiten, beste parte-hartzaileak begira dituela.

JOSETXO ARANTZABAL

**BOULDERRA** > EUSKAL LIGAKO BIGARREN JARDUNALDIA JOKATU ZEN ZAPATUAN UARKAPEN

## Uarkapen 70 lagun aritu ziren boulder txapelketako lehian

Zapatuan, goizeko 10etan hasi zen Boulder ligako bigarren jardunaldia. Lehiaketa amaieran, eskalada materiala zozketatu zuten

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ARRASATE

Arrakasta izugarria izan zuen zapatuan Uarkapen jokatuak boulder ligako bigarren jardunaldia. 70 eskalataile aritu ziren, horien artean ibarreko bederatzita neska-mutiko.

Bost taldetan banatuta aritu ziren lehiakideak: 18 urtetik beherakoak, herrikoiak (neskak eta

mutilak) eta elite mailakoak (neskak eta mutilak).

**ELITE MAILAN, IBARREKORIK EZ**

Elite mailan, ez zen ibarreko eskalatailerik izan. Mutilen artean, Mikel Martiarena, Oskar Lopez eta Igor Malvido izan ziren onenak. Nesketan, berriz, lau lagunek besterik ez zuten izena eman.

Herri mailako taldean, Jone Martinez, Alaitz Martinez, Olatz Azkarate eta Mirian Mulas arrasatearrak finalera iritsi ziren. Mutiletan, ez zuen Debagoieneko inork parte hartu.

18 urtetik beherakoen artean, Jon Agirre oñatiarra eta Mikel Velasco, Iñaki Viejo eta Josu Viejo arrasatearrak finalera iritsi ziren. Jon Sanchez arrasatearra, berriz, finalerik kanpo geratu zen.

Final guztiak amaitu zirenean, eskalada materiala zozketatu zuten. Martxoaren 3an, ligako hirugarren jardunaldia jokatu dute Amurrioko kiroldegian.

**ATLETISMOA** > EUSKAL HERRIKO KROS TXAPELKETA

## Yerai Varela, hirugarren Euskal Herriko Txapelketan

Lortutako emaitzarekin, korrikalari oñatiarrak Espainiako Txapelketan parte hartuko du

**MIREIA BIKUÑA** > BERGARA

Ortuellan jokatu ziren, atzo goizean, Euskal Herriko Kros Txapelketak. Promesa mailan, Yerai Varela atleta oñatiarrak hirugarren postua, brontzezko domina, eskuratu zuen. Hala, martxoaren 11n, Caceresen jokatu den Espainiako Txapelketarako txartela eskuratu du korrikalari oñatiarrak.

Zapatu gauean botatako euriak asko gogortu zuen lasterketako zirkuitua: "Oso lokaztuta zegoen zirkuitua. Egoera horretan, 11.600 metroak oso gogorak egiten dira", azaldu zigun amaieran Yerai Varelak.

Gustura amaitu zuen hirugarren tokian, bigarrena bost segundora izan zuen arren.

Euskal Herriko Kros Txapelketan parte hartu du ere Martin Berrizbeitia aretxabaletarrak. Kadete mailako lasterketan parte hartu zuen, eta 8. tokian amaitu zuen.

**JONATHAN PEREZ**

4,91 metroko pertika-jauziarekin, seigarren tokian amaitu du Jonathan Perez arrasatearrak Sevillan jokatu den Espainiako Atletismo Txapelketa. Ez zuen gustura amaitu txapelketa: "Lagun batek utzitako pertikekin egin dut salto. Oraindik ez dakit nire pertikak non dauden. Zalantza geratzen zait, nire pertikekin ez ote nuen bost metroko jauzia egingo", esan zigun atleta arrasatearrak.



LOKATZA Zapatu gaueko euriek zirkuitoa gogortu zuten.

SERGIO GARCIA

**TXIRRINDULARITZA** > TALDEEN AURKEZPENA

## Aloñak lau talderekin ekingo dio denboraldiari

Alebin, infantil, kadete eta gazte mailako taldeak izango ditu errepideetan Aloña Mendi Txirrindularitza sailak; guztira, 23 txirrindulari

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Aloña Mendiko txirrindularitza sailak Etxe-Aundi jatetxean egin zuen lau taldeen aurkezpena, zapatu goizean. Bertara hurbildu ziren txirrindulariak, taldeetako zuzendariak eta lagunak eta senitarteak. "Beste urte batez, hementxe gaude, betiko ilusioarekin. Oñatiko harrobiarekin lan egiteko prest gaude oraindik ere", azaldu zigun, argazki saioa hasi aurretik, txirrindularitza sailako presidentek, Pedro Irurtzunek.

**LAU TALDE**

23 txirrindulari izango ditu Aloña Mendik errepideetan, lau taldetan banatuta: alebinak, infantilak, kadeteak eta gazteak.

Aitor Umerez, Aritz Anduaga, Unai Arabaolaza, Iñaki Mugartza eta Iker Arkauz dira infantil mailako txirrindulariak. Bestalde, Jon Arkauz, Mikel Fernandez, Iker Alberdi, Aitor Atxa, Xabier Aiausti, Mikel Nieto, Iñigo Madina, Aritz Zabaleta eta Borja Corrales dira alebin mailako kideak. Bi talde hauetako zuzendariak Andoni Urteaga eta Mikel Irusta dira.

Gari Baños eta Mikel Lizarralde zuzenduko dituzte kadete eta gazte mailako taldeak. Ander Altube eta Xabier Mugartza dira kadete mailakoak; eta Julen Elkoiribe, Oier Olalde, Iñaki Igartua, Xabier Arnaiz, Iñaki Madinabestia, Julen Arkauz eta Andoni Urrutia, gazte mailako txirrindulariak.



TXIRRINDULARIAK Talde argazkia egin zuten Aloña Mendiko txirrindulari guztiek Etxe-Aundin.

JOSETXO ARANTZABAL



## Zorionak irabazleoi!

ASTELEHENEKO GOIENKARIAko harpidedunen artean zozketatu ditugun  
**Realeko 10 txaleko eta 10 motxilen** irabazleak honakoak dira

### Realeko 10 motxilen irabazleak

Francisca Arabaolaza Alzelai  
(Elgeta)  
Bixente Iñurrategi Pagaldai  
(Eskoriatza)  
Luis Maria Muruamendiaraz Bastarrika  
(Arrasate)  
Gurutz Orbe Narvaez  
(Bergara)  
Felix Agirre Aranguren  
(Antzuola)  
Patxi Osa Aldekoa  
(Bergara)  
Aitor Oregi Labaien  
(Bergara)  
Miren Rodriguez Alfonso  
(Arrasate)  
Jon Suinaga Landa  
(Bergara)  
Jose Ignacio Uribe Uriarte  
(Aretxabaleta)

### Realeko 10 txalekoren irabazleak

Francisca Arabaolaza Alzelai  
(Elgeta)  
Bixente Iñurrategi Pagaldai  
(Eskoriatza)  
Luis Maria Muruamendiaraz Bastarrika  
(Arrasate)  
Gurutz Orbe Narvaez  
(Bergara)  
Felix Agirre Aranguren  
(Antzuola)  
Patxi Osa Aldekoa  
(Bergara)  
Aitor Oregi Labaien  
(Bergara)  
Miren Rodriguez Alfonso  
(Arrasate)  
Jon Suinaga Landa  
(Bergara)  
Jose Ignacio Uribe Uriarte  
(Aretxabaleta)

Sariak jasotzeko pasa zaitezte honako egoitzetatik,  
astelehenetik egubakoitzera 09:00-13:00 / 14:30-18:30

Bergara, Antzuola eta Elgetakoak:  
GOIENKARIA  
Irizar Jauregia – Barrenkale 33  
BERGARA

Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Aramaio eta Oñatikoak:  
GOIENA  
Nafarroa Etorbidea 2 – 1. Solairua – 5. Atea (Saiolan eraikina)  
ARRASATE

Eta urtean zehar ere, ASTELEHENEKO GOIENKARIAko harpideduna izateagatik, astero hainbat **opari** jaso ahal izango dituzu.

**Goienkaria**  
astelehenean, aste bukaera osoa

ASTELEHENEKO GOIENKARIA,  
urte osoko harpidetza,  
**35 euroren truke (902 36 38 51)**



> **BEATRIZ ZABALONDO**  
Itzultzaileen eta Interpretarien elkarteko presidente aukeratu dute elgetarra > 26



> **DENIAL**  
Bilbo Hiria musika lehiaketan parte hartzeko sailkatu da Arrasateko rock taldea > 26



> **ANTZERKIA**  
'Ama, quiero ser lehenakari' lanak denetariko inpresioak egin zituen Oñatin > 27

JAIK > ARATUSTEAK

## Eguraldi txarrari mozorro onak jarri zizkioten debagoiendarrek

**SARDINA** Arrasaten, sardina eman diote koadrila onenari: A8 txoke-autoek irabazi dute aurtengoan

**GATZAGA** Kultura etxean bildu ziren zapatuan afaltzeko, eta gero, dantzaldia egin zuten

**EDURNE BURGAÑA** > BERGARA

Aratusteak ere badoaz aurrera, eta, asteburuan eguraldi txarra egin badu ere, aurpegi ona jarri eta, mozorro dotoreenak jantzi-ta, kalera irten dira zahar eta gazte Debagoieneko herri askotan.

**GIRO EDERRA**

Egubakoitzean, eskoletako umeak desfilatzen ibili ziren. Eguraldia, behintzat, asteburuko gairontzeko egunetan baino onagoa eduki zuten: eguzkiak berotu zituen umeen dantzak. Bergaran, Mariaren Lagundiako ikasle eta irakasleak pailazo mozorrotuta ibili ziren herriko kaleetan zehar. Aranzadi ikastolakoek ostera, Kilometroak eta Euskal Herriko Aratusteak eduki zituzten gai nagusitzat. Oñatin, eskola gehienek bihar egingo dituzte euren desfileak, baina Txantxi-ku Ikastolakoek egubakoitzean egin zuten euren: indiarrek, eskimalak, txinatarrak, mexikarrak, egiptoarrak eta pailazoak ikusteko aukera egon zen. Gero, txokolatada egin zuten, indarrak berritzeko.

Gatzagakoek ere ez dute atzean geratu nahi izan, eta aspaldiko ohiturei jarraiki ospatu dituzte Aratusteak. Zapatuan, 16:00etan ateratzen ziren umeak kalera euren mozorroekin: euri zaparrada, haizea... denetarik eduki zuten, baina frontoian giro ederrean egon ziren herriko gazteenak. Joko eta jolasak egin zituzten bertan, eta ostean, 18:00etan, txokolatada egin zuten.

Baina umeek bakarrik ez zuten ospatu jaiak. Iluntzean, kultur etxean batu ziren afaritarako zahar, gazte eta heldu. Eraikuntza eurentzat hartu zuten. Lehenengo pisuan, afaria: hestebeteak, pateak, gildak, bildotsa eta sorbetea jan zuten helduek, eta umeek, solomoa patata errekin. 56 nagusi eta 22 ume batu ziren eta giro aparta eduki zuten.

Gainera, Gatzagako Kaixo taldearen kontzertua egon zen azpiko lokalean, eta 03:30era arte ibili ziren dantzagan egon ziren guztiak.

**TXOKE-AUTOAK ARRASATEN**

Arrasaten ere, zapatuan hasi zituzten Aratusteak. Jaiak hasteko, sardina ateratzen aurtengoan. Jende gaztea aste bitartean lana edo ikasketak direla-eta ateratzen zenez, jaiak eta parranda asteburuan hastea erabaki zuten. Arrakasta handia lortu zuten jaiak zapatuan hasita, eta aurtengoan errepikatzea erabaki zuten. Hasieran atzera botatzekotan egon baziren ere, antolakuntzan jende gutxi zegoelako, jaiarekin aurrera egin dute.

Eguna hasteko, pregoia bota zuten 12:00etan, eta kalejiran ibili ziren. A8 txoke-autoak deiturikoak euren artean talka egiten eta pasatzean aurkitutako auto guztien kontra ibili ziren. Txaranga ere ikusi ahal izan zen; neska koadrila bat euren egindako instrumentuekin kaleak alaitzen. Eta mafiosoak ere agertu ziren Arrasaten: R5 autoaren sabaia moztu eta kaleetan zehar ibili ziren armak eskuetan zituztela.

Gaztetxeak Auzitegi Nazionalerantz mozorrotu ziren. Izan ere, sardina nori eman erabakitzea euren egokitu zitzaienten, eta hori aitzakiatzat hartuta, abokatu, epaile eta denetariko mozorroak jantzi zituzten. Bide batez, egun martxan dauden prozesu guztiak salatze ere erabili zuten mozorro hori. Aurtengo sardina irabazi zuen koadrila A8 txoke-autoena izan zen.

Herri bazkaria egin zuten Uarkape frontoian Arrasatekoek. Hasieran 300 lagunentzako antolatuta bazegoen ere, txartelak (24. orrialdean jarraitzen du)



**DENETARIK** Arrasateko txoke-autoak (sariak), Eskoriatzako jaiak eta Aretxabaletako saridunak.

## Eguraldi txarrari mozorro onak jarri zizkioten ibarrekoek

(23. orrialdetik dator)

lehenengo asterako agortu ziren, eta 350 lagunendako izatea erabaki zuten. Zahar, heldu, gazte eta ume bildu zen bertan. Bazkaloanean, bertso saioa ere edukitu zuten bertara joan zirenek; taula gainean, Jokin Labaien eta Manex Agirre.

Domeka eguerdian, Aretxabaletan, desfilea egin zuten. Eguraldiak agoantatu zuen tantarik erori barik 13:00ak ingurura arte, eta jende asko batu zen.

Desfilean, denetarik ikusteko aukera egon zen. Aretxabaletakoek urteroko originaltasuna erakutsi zuten beste behin ere. UDAko jokalarik eta zuzendaritzak batzordekoek trailerra eroan zuten herrira. Bertan, erromatar bilakatu ziren: soldadu, agintari... denetarik zegoen taldean. Bergarako Txibisto diskotekak atek zabaldu zituen egun bateko. Izan ere, traktore batekin eta bi gurdirekin, orain urte batzuk arte martxan egondako dantzalekua berpiztu zuten Zelaibaiketakoek eta, gainera, mozorro onenaren saria irabazi zuten.

Brasilgo eguraldi ederra ez bada ere, bertako giroaren zati txo bat ikusi ahal izan zen, herriko bi koadrila brasildar mozorrotu ziren-eta: batzuk, tinbalak eskuan hartuta, musika egiten ibili ziren; bigarren koadrilakoak dantzariekin agertu ziren, eta Rio de Janeiroko Jesukristo Erredentorea ere eroan zuten herrira.

Bestalde, Loramendi elkar-tekoek tabernetan proposatutako lehiaketa ere bazegoen. Aurtengo gaia herri kirolak izan dira. Baina tabernariak nahiago izaten dute, antza denez, eurek aukeratu bezala mozorrotzea.

Kirol etxean bazkaria egon zen desfilearen ostean. Antolatzen den bigarren aldia da aurtengoa. Iaz, Udalak martxan jarri zuten bazkaria, eta aurten herriko koadrila bati egokitu zaien antolatzea. 500 sarrera jarri zituzten salgai, eta astebetean agortu ziren guztiak.



PAILAZOAK Nagusi izan ziren Bergaran eta kanpoan ere.

EDURNE BURGAÑA



DANTZA Elgetako zingaroek dantzan egin zuten egubakoitzean.

JOSETXO ARANTZABAL



INDIOA Debagoien osoan indio asko izan zen, ume zein heldu.

JOSETXO ARANTZABAL



AFARIA Umeek ere gustura afaldu zuten Gatzagan.

JOSETXO ARANTZABAL



TXOKOLATEA Oñatiko umeek txokolate-jana izan zuten.

MIREIA BIKUÑA



MAFIOSOAK Arrasateko lagun koadrila mafiosoz mozorrotu zen, kapota gabeko R5 eta guzti.

JOSETXO ARANTZABAL



JOKOAK Gatzagako umeek jokoak izan zituzten zapatuan frontoian.

J. ARANTZABAL



# kutxa**NOMINAK**

## SMS bidezko Abisu zerbitzu berria

Nomina  
sartu orduko  
guk abisua  
bidaliko.

Doako zerbitzua. Nomina **kutxan** helbideratua izateagatik, besterik gabe.

Sartu [www.kutxa.net](http://www.kutxa.net)-en eta eman izena.

LITERATURA &gt; ANA URKIZA ARRASATEN

# Ana Urkizak 'Zortzi unibertso, zortzi idazle' lana aurkeztuko du eguenean Arrasaten

19:00etan izango da hitzordua Kulturateko arteko nagusian; emakume idazleak izango dira hitzaldiko gai nagusia

Zortzi emakume idazle elkarrizketatu ditu Urkizak lan horretan; emakumeen ikuspegia azaltzeko lana izan dela azaldu du

EDURNE BURGAÑA &gt; ARRASATE

Yolanda Arrieta, Aurelia Arko-txa, Itxaro Borda, Mariasun Landa, Miren Agur Meabe, Laura Mintegi, Lurdes Oñederra eta Arantza Urretabizkaia elkarrizketatu ditu Ana Urkizak *Zortzi unibertso, zortzi idazle* liburuan. Eguenean, Arrasateko Kulturateko areto nagusian egongo da lana aurkezten, 19:00etan.

EMAKUMEARI TARTEA

Elkarrizketak lau gairen inguruan izan direla azaldu du Ana Urkizak: "Idazlea bera, obra, emakumetasuna eta euskal literatura". Eta galdera batzuk errepikatu egiten badira ere zortzi idazleendako, bakoitzari elkarrizketa propioa egin diola ere zehaztu du.

Liburua idazteko orduan, helburu bi zituela ere azaldu du Urkizak: "Emakume idazleak kanonizatzeko arrazoiak aurrerazi nahi nituen; gutxienez, zortzi horiek kanon horretarako hautagaiak direlako. Bestalde, kanonaren gaineko irizpideen gainean pentsaraztea bilatu nahi nuen".

Irakurleen gainean ere berba egin du idazleak. Alde bate-tik, ez dago jende orokorrari zuzenduta: "Literatur sisteman parte hartzen duten idazle, kritiko, kazetari, irakasle eta gaine-rakoei zuzenduta dago liburua; azken finean, literatura mugitzen duten agenteei. Zergatik emakumeek ez dute oihartzunik? Horren gainean hausnarke-ta egitea eskatzen dut".

Liburua elkarrizketa formatuan egoteak irakurtzeko erraza izatea ekartzen du. "Ez dira soilik literaturaz ari elkarrizketatuak. Pertsonagandik hasten dira, eta horrek idazle bakoitzaren obra ulertzeko giltza ematen du. Jende asko harrapatu du, eta gainera, emakume bat baino gehiago islatuta ikusi da".

Atzera begiratuta, Urkizak gaztetan idazleei egindako elkarrizketak irakurtzen zituen. "Beti azpimarratzen zuten idazleek gizartean duten eragina. Guztiak gizonezkoak izaten ziren. Emakumeen ikuspegia azaltzeko ordua zela ikusi eta lanari ekin nion", argitu du Urkizak.

&gt; MUSIKA

## Villa de Bilbao lehiaketan parte hartuko du Arrasateko Denial death metal taldeak

Aurten, Villa de Bilbao lehiaketaren 19. edizioa jokatuko da. 40 taldek parte hartuko dute bertan, eta Arrasateko Denial da horietako bat.

Bi atal ditu lehiaketak: lehenengoa, izen ematea. Parte hartu nahi zutenek abenduaren 31ra arteko tartea eduki zuten maketa edo diskoa bidaltzeko eurek konposatutako hiru abestirekin. Hiru musika estilo bereizten dituzte: pop-rocka, metala eta joera berriak.

Bigarren atala, kontzertuak. Epaimahaiak 40 talde aukeratu ditu; kontzertuak martxo eta maiatz artean izango dira. Denial taldeak martxoaren 28an joko du BilboRock aretoan.

Irabazleak 32.000 euro eta bi disko grabatzea lortuko du.

&gt; EUSKARA

## Beatriz Zabalondo elgetarra izendatu dute EIZIE zuzentzaileen elkarteko lehendakari

Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarteak (EIZIE) parte-hartze handiarekin egin zuen zapatuan urteko batzar nagusia. Bertan, aho batez izendatu zuten elkarteko lehendakari posturako Beatriz Zabalondo elgetarra. Orain arte lehendakariorde izan denak Joseba Ossaren lekukoa hartuko du kargu horretan.

Itzultzaile lanetan jarduteaz gain, HUHEZI fakultateko irakasle ere bada Zabalondo.

Bileran erabaki zuten, orain arte literaturaren inguruko proiektuei garrantzia eman bazaie ere, itzultzaileen lan baldintzei buruzko alorra gehiago lantzea aurrerantzean.



Beatriz Zabalondo.

GOIENKARIA

EIZIEk, era berean, Itzulbaita proiektuari bultzada emateko konpromisoa ere hartu du. Proiektuaren baitan, lan espezializatuak jorratuko dira.

Maulanda  
merenderoa

Eguneko  
menua

Maulanda Auzoa ESKORRIATZA  
Tel.: 943 71 47 20 eta 943 71 54 56

KRONIKA > 'AMA, QUIERO SER LEHENDAKARI' ANTZEZLANA

# 'Ama, quiero ser lehendakari'-k barre algarak eta logalea sortu zituen Oñatin

Aitzpea Goenagak idatzi eta zuzendutako antzezlanak, besteak beste, politika du hizpide; gainera hartutako gaia izan arren, batzuen barre algarak entzun ziren

**NAIARA LARRAÑAGA > OÑATI**

Egubakoitz gauean Oñatiko Santa Ana aretoa bete-bete egin zen. Arrazoia, *Ama, quiero ser Lehendakari* antzezlanak. Kritika onak lortu dituen lana. Politikaz berba eginda, antzezlan barregarria, eta inor iraintzen ez duena egitea lortu dutela diote kritikoeak. Eta gainera, politikarien alde gizatiarrena bilatzen duela.

**ARINEGIA**

Kritikoeak inor iraintzen ez duen antzezlanak dela diote. Ez da harritzekoa. Izan ere, politikaz ari dira obran, baina oso gaineratik jorratzen dute gaia. Barregarria ere badela diote. Baina kontu batzuek bakarrik eragiten dituzte barre algarak; orokorrean, arin hartutako gaia da politika.

Aitzpea Goenagak idatzi eta zuzendutako lanean, Euskal Herriko familia baten historia kontatzen da. Astero biltzen dira



POLITIKARIAK *Ama, quiero ser lehendakari* antzezlaneko aktoreak politiko lanetan ibili ziren.

JOSETXO ARANTZABAL

amaren inguruan, eta, beraien artean ohi bezala, sesioan ibiliko dira. Baina azkeneko bileran aldaketa bat egongo da. Egunkarian lehendakaria behar dela esa-

ten duen iragarkia irakurri ostean, guztiek euren gaitasunak erakutsi nahi izango dituzte.

Hasteko, zein partidutan parte hartuko duten erabaki behar

dute, baina ez da kontuan eduki beharreko bakarra: irudia, jende aurrean hitz egitea, edo familiar berria nola hartuko duen ere kontutan eduki beharko dituzte.

Lehenengo lerroetan eserita zeudenek parte hartzea lortu zuten txaloak jo zituzten abestietan, baina loak hartu zuena ere ikusteko aukera egon zen.

KONTZERTUAK > THE BOYS ETA NUEVO CATECISMO CATOLICO

## The Boys-ekoek adina ahaztu eta dena eman zuten

Hainbat adin eta herriko 400 bat lagun batu zen egubakoitz gauean Arrasaten kontzertuan

**JOKIN MUNARRIZ > ARRASATE**

The Boys talde ingelesa eta Nuevo Catecismo Catolico entzuteko aukera egon zen egubakoitzean Arrasateko 3.600 aretoan. Eta jendeak jakin zuen hitzorduari erantzuten: 400 lagunetik gora batu zen bertan.

**LAN TXUKUNA**

Hainbat adin eta herriko jendea, musikak batuta: Ingalaterratik, 20 lagun etorri ziren, Bilboko jendea, frantsesak ere bai, punky nagusiak eta skin head gazteak. Izan ere, The Boys taldeak ez ditu kontzertu asko ematen: Estatuan, bi kontzertu aurten.

Nuevo Catecismo Catolico taldeak ireki zuen gaua. Gauerdian hasi ziren, eta ordubeteko saioa eskaini zuten. Diskografia osoa errepasatzeko tarteak eduki zuten: abesti punky eta azkarrenak.

Eneko abeslariak jendearekin konektatu nahi izan zuen, eta baita lortu ere.

Ostean, The Boys taldea. Aipatzekoa da, horrelako taldeetan, askotan ez direla etortzen formazio originaleko musikariak. Baina ez zen kasua izan. Teklatu-jolea izan ezik, gainontzekoak hasierako taldekoak izan ziren.

Nagusiak izan arren, txukun jotzen du taldeak. Hasierako kan-



PUBLIKOA POLTSIKOAN The Boys taldekoek ikusleak bereganatu zituzten.

JOSETXO ARANTZABAL

tu biziarekin hasi zuten emanaldia: melodia handiko punk-rocka, edo aditu batzuek power punk ere deitzen dutena.

Azkeneko sasoiko abestiei erkolpe egin zieten, baina indarra

falta zitzaion. Moteldu egin zen kontzertua. Hala ere, publikoa poltsikoan zuten, zer eskainiko zain. Saiatu ziren ahal zuten guztia ematen, baina soinuak ez zuen askorik laguntzen. Tartean, abes-

ti futboleroak ere sartu zituzten gainera.

Klasikoen tartean, gonbidatu bi taula egon ziren gainean: Golpe de Estadoko *Txirli*, eta Lays Ramone.

## gazte zerbitzuak

## BEKAK

> **Erabateko kalitateari/bikaintasunari** buruzko lankidetzak beka. Euskalit. Gazteak lan munduan orientatzeko. Lizentziadunak eta diplomadunak, 32 urtetik beherakoak eta langabeak. Epea: uztailaren 31.

## LANA

> **Begiraleak.** Ikastolen Elkartek begiraleak behar ditu udan antolatzen dituen euskal eta ingeles udalekuetarako. Epea: martxoaren 16a.

## LEHIAKETAK

> **Musika.** Leioako Udala. VII. Leioa Pop Rock lehiaketa. Saririk irabazi gabeko musika taldeak. Epea: otsailaren 23a.

## BOLUNTARIOTZA

> **Boluntarioak.** Gipuzkoako Guruzte Gorria. Boluntarioak behar dira hainbat esparrutan bakarrik dauden adin txikiko atzeritarrekin elkarlanean aritzeko. Gaztelania emateko eta astialdiko ekintzak antolatzeko. Informazio gehiago 943 22 22 22 telefonon.

## INFORMAZIOA

> **Gazteei zuzenduta.** Iragarki taula digitala, bloga da. Zerbait saldu, erosi, etxebizitza bila bazabiltza, edo lagun bila bazabiltza, doanik zure iragarkia jartzeko aukera duzu.

> **Nazioarteko txartelak.** Aterpetxe, ikasle, irakasle edo gazte txartel internazionala atera dezakezu Gazte Bulegoan. Urte bateko iraupena.



**ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:**  
Biteri etorbidea 3 • 943 77 00 65  
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net

**BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEAK:**  
Kultura etxea • 943 77 91 57  
gzerbitzua@euska.net

**OÑATIKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEAK:**  
Foruen plaza 4 • 943 71 82 57  
gazteinformazioa@oinati.net

## 1/ ETXEBIZITZAK

## 101. SALDU

**Arexabaleta.** 72 metro koadro. Erdialdean. Azken solairua (buhardilla). 16 metro koadroko garajea dauka. Berrikuntza-aren bat behar du. Deitu 659 64 67 38 telefonora.

**Arexabaleta.** Etxea salgai Mar-kole kalean. 97 m<sup>2</sup>. Deitu 649 66 49 70 telefonora.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai. 80 metro koadro ditu. Hiru logela, sukaldia, egongela eta despentsa ditu. 629 62 44 69.

**Arrasate.** Grupo San Juanen. Bi logela, berogailu individuala, eguzkitsua. Ganbararekin. Deitu 606 25 92 80 telefonora.

**Arrasate.** Santa Marina auzoa. Garajea, hiru logela. Dena kanpoaldera. Jantzita. Deitu 692 70 22 76 telefonora.

**Arrasate.** Grupo San Juanen. 60 m<sup>2</sup>. Ganbara, igogailua eta berogailua. Deitu 606 25 92 80 telefonora.

**Bergara.** Bidekurutzetan etxea salgai. Bi logela, egongela, guzti berritua. 699 65 48 34.

**Bergara.** Etxea herri erdian. Lau logela. Altzariarekin. Deitu 659 44 76 75 telefonora.

**Bergara.** Etxea salgai Zubiaurren. Berritua. Ganbararekin. 943 28 76 36.

**Bergara.** Ibargarai kalean. 70 metro koadro. 685 75 86 95.

**Bergara.** Labegaraietan. Eguzkitsua. Etxetresna elektrikoek 6 hilabeteko bermea. Deitu 635 71 04 55 telefonora.

**Bergara.** Simon Arrietan. 80 metro koadro. Bi logela, jangela, sukaldia, bainugela bat eta berogailua gas naturalarekin, individuala. Igogailua. Balkoi ederra. Garajea aukeran. 270.455 euro. Deitu 664 73 49 60 telefonora.

## 102. EROSI

**Arrasaten.** Musakola auzoan etxebizitza behar da. Derrigorrezkoa hiru logela edukitzea. 653 71 64 79.

## 103. ERRENTAN EMAN

**Eskoriatza.** Etxea herri erdian. Hiru logela. 696 16 83 06.

**Noja.** Bi logelako apartamentua emango nuke errentan. Garajea eta igogailua ditu. Deitu 635 75 35 29 telefonora.

## 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Emakume batek etxea hartuko luke errentan semea-reen bizitzeko. 629 94 66 61.

## IRAGARKI SAILKATUAK

Egubakoitz eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

943 25 05 01

sailkatuak@goiena.com

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 18 EURO (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO. PREZIO BEREZIA: EGUBAKOITZETAKO ETA ASTELEHENKO GOIENKARIAN BIETAN, ARGITARATUZ GERO 25 EURO (+BEZ).**

GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## BERGARA

**Mekanizazio enpresa batek LH II titulua duen pertsona bat behar du tailerrerako. Interesatuok bidali curriculumak 279 posta-kutxara.**

## 4/ LANA

## 401. ESKAINTZAK

**Debagoiena.** Emakumea eskaintzen da sukaldari laguntzaile lan egiteko. 677 04 26 73 edo 626 81 32 07.

## 402. ESKAERAK

**Arexabaleta.** Emakumea gertu etxeko lan egiteko, umeak zaintzeko... (Ana Maria). 648 86 09 41.

**Debagoiena.** Emakume bat lan egiteko gertu: zerbitzari, umeak edo pertsona helduak zaindu... 699 83 07 59.

**Debagoiena.** Emakumea prest pertsona nagusiak zaintzeko. Gauze ere bai. Etxean zein ospitalean. 688 60 88 38.

**Debagoiena.** Emakumea prest pertsona nagusiak zaintzeko. Gauze ere bai. Etxean zein ospitalean. 688 60 88 38.

**Debagoiena.** Erizaintzan ezagutza duen emakumea eskaintzen da edadetuak zaintzeko. 677 04 26 73 edo 626 81 32 07.

**Debagoiena.** Gizezko bat jostun lan egiteko prest. Barrenak, kremaierak... Deitu 699 34 86 88 telefonora.

**Emakumea** pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Esperientziaduna. 695 58 88 63.

## 5/ IRAKASKUNTZA

## 502. EMAN

**Bergara.** Eskola partikularrik emango nituzke. Irakasle titulua dut. 636 16 30 10.

**Bergara.** Matematika eta fisika eskolak ematen ditut. Deitu 696 38 10 07 telefonora.

**Bergara.** Neska lizentziaduna LHko edozein ikasgai emateko prest. 669 07 08 18.

**Matematika,** kalkulu, ingeles, mekanika eta fisikako laguntza eskolak ematen ditut. Batxilergo eta unibertsitate mailan. Marco. 649 63 23 24.

## 6/ MOTORRA

## 601. SALDU

**Audi A3 Sportback 2.0 Tdi** salgai. 2005ean erosi. 29.000 km. Estra ugari: S-Line paketea, bi-xenon, Tempomat... Oso ondo dago. 635 73 72 07.

**Autokarabana** salgai. Deitu 658 72 11 49 telefonora.

**BMW 530 diesel.** Telefonoa dauka instalatuta. Kontsumo txikia. Oso egoera onean. 655 74 34 14.

**BMW Compact.** Diesela. 150 ZP. 43.000 km. Oso egoera onean dago. Deitu 687 73 68

87 telefonora.

**Citroen C3 HDI 1.4** autoa salgai. 42.000 kilometro. 2003ko martxokoa. Aire girotua. 7.500 euro. 685 71 80 66.

**Citroen C5 HDI 2.0** salgai. 110 ZP. 83.000 kilometro. 2004ko ekainekoa. Egoera onean. Estra ugari. 12.500 euro. Deitu 665 02 66 23 telefonora.

**Citroen Saxo.** Diesela. 5 urte. 3.500 euro. Deitu 22:00etatik aurrera. 678 82 29 95.

**Fiat Escudo 1.9 TDI** furgoneta. 1999koa, 166.000 km. Lo egiteko gertatuta. 665 71 73 19.

**Ford Escort** autoa salgai. SS-AD matrikula. 18 urte ditu. Ondo zainduta dago. 500 euro. 686 74 01 95.

**Nissan Patrol.** 6 zilindro. Auto-arendako ordezko beste motor bat ere saltzen da. Oso egoera onean. 943 76 71 11.

**Opel Astra.** 1.7 TDI, 75 zaldi, 88.000 km. 647 60 68 88.

**Opel Zafira** salgai. 2004koa. Diesela. Egoera onean. Aire-girogailua. Aleazio-hagunak (llantak). ESP. 100 zaldi-potentzia. Deitu 629 56 29 25 telefonora.

**Opel Agila** salgai. Lau urte. 18.000 km. Aire girotua, hagunak (llantak), ispilu elektrikoak. 688 60 45 24.

**Peugeot 206 1.9 XR.** Diesela. Hiru ate. 2002 urtekoa. 65.000 kilometro. Beti garajejan gordeta egon da. Lau gurpilak negukoak. 5.500 euro. Deitu 655 70 16 43 telefonora.

**Quad Honda 250.** 2002koa. 4.500 km. Egoera onean. 652 70 57 66.

**Volkswagen Sharan 1.8 Turbo.** Gasolinazkoa. Azterketa teknikoan liburuxka dauka. 1999koa. 121.000 km. Oso egoera onean. 7.500 euro. 645 73 97 69.

**Volvo V-40** auto familiarra salgai. 2000koa. 150.000 kilometro. Gorria. 7.500 euro. Deitu 943 16 19 45 telefonora.

## 7/ ANIMALIAK

## 701. SALDU

**Cocker beltza.** Bi hilabete. Deitu 943 77 20 58 telefonora.

## 703. EMAN

**Hiru arratoi-txakur** ditut opari egiteko. Deitu 945 44 51 46 telefonora.

**Txakurra** opari egiten dut. Urtebete dauka. Arra da. Deitu 943 76 64 65 telefonora.

## 8/ DENETARIK

## 801. SALDU

**Bergara.** Hektarea bateko lursaila salgai. Oso egokia bordatxo bat egiteko. 18.000 euro. Deitu 678 72 75 72 telefonora.

**Bi ohe.** 90 cm-ko bi ohe, koltxoiak eta somierrak 300 eurotan. Estreinatuta gabe. Deitu 647 60 68 88 telefonora.

**Bisofa.** Bata bi pertsonarendako eta bestea hirurendako. Gorria, zetazkoak. 50 euro. Deitu 665 73 65 95 telefonora.

**Sony telebista** salgai. 32 hazbete (pulgada). Aluminiozko eta kristalezko altzariarekin. Prezio interesgarria. Deitu 607 63 48 88 telefonora.

## 806. GALDU

**Arrasate.** Otsailaren 10ean (zapata) Trango markako txamarra beltz bat ahaztu zuten Abaroa aurrealdean. Deitu 605 77 23 72 telefonora.

## 807. AURKITU

**Bergaran.** Labegaraietako kiroldegian, orain dela hiru aste bizikleta bat laga zuten. Handik pasatu jasotzeko.

## 808. BESTELAKOAK

**Oñati.** 9-10 laguneko koadrila batek beste koadrila batekin Astigarragako sagardotegira joateko autobusa konpartitu nahi luke. Eguna: martxoak 10. Bazkaria izango litzateke. Deitu 650 62 20 32 telefonora.

**San Blas auzoan** dagoen elkar-terko bazkide izan nahi baduzu, dei diezazazu. Aukera ona. Trenbidetik gertu. 626 19 14 85.

119. zozketa

ASTELEHENKO GOIENKARIA  
Harpidedunen  
**txokoa**

Astelehenko Goienkaria-ko harpidedun bazara, adi:  
**Zeu izan zaitzake hurrengo zozketako irabazle eta bat!**

119. zozketako sariak

Baldintzak



**ECRON GC-800**  
Micro kate bat

- Astelehenko Goienkaria-ko harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51  
09:00etatik 18:00etara.


Harpidetza kuota:

35 euro  
2007 bukaera arte.

ASTELEHENKO  
**Goienkaria**  
astelehenean, aste bukaera osoa

astea GOITBn

Astelehena, 19



> 'Ametsak dozenaka' erreportajea 21:47

Euskal label-dun arrautzen gaineko erreportajea egin dute Goierri Telebistakoek eta horretarako Euskaber lantegira jo dute.

13:15 Emisio hasiera.  
13:20 Marrazki bizidunak: Calimero.  
13:45 Gaurkoak.  
13:47 Teknopolis.  
14:15 Hitz bitan.  
14:45 Albisteak.  
15:15 Ilunpean.  
15:45 Gaurkoak.  
15:47 Gatza ta berakatz.  
16:00 MKT.  
16:15 Jazzmina.  
16:45 Albisteak.  
17:15 Marrazki bizidunak.  
17:45 Gaurkoak.  
17:47 Ur eta lur.  
18:15 Eltze beroa.  
18:45 Albisteak.  
19:15 Musikantoi.  
19:45 Berriak.  
20:15 Marrazki bizidunak: Calimero.  
20:45 Berriak.  
21:15 Harmailatik.  
21:45 Gaurkoak.  
21:47 Erreportajea: Ametsak dozenaka.  
22:15 Hasiberriak.  
22:45 Berriak.  
23:15 Didjeridu.  
23:45 Gaurkoak.  
23:47 Ikusmira.  
00:15 Emisio amaiera.

Martitzena, 20



> Aratusteen gaineko saio berezia 21:47

Debagoieneko Aratusteen gaineko saioa. Herriz herri ibili dira GOITBko kameralari eta kazetariak, irudiak grabatzen eta iritziak jasotzen.

13:15 Emisio hasiera.  
13:20 Marrazki bizidunak: Fernando amezketarra.  
13:45 Gaurkoak.  
13:47 Harmailatik.  
14:15 Erreportajea: Ametsak dozenaka.  
14:45 Albisteak.  
15:00 Didjeridu.  
15:45 Gaurkoak.  
15:47 Hasiberriak.  
16:15 Ikusmira.  
16:45 Albisteak.  
17:15 Marrazki bizidunak.  
17:45 Gaurkoak.  
17:47 Ilunpean.  
18:15 Gatza ta berakatz.  
18:30 MKT.  
18:45 Albisteak.  
19:15 Harmailatik.  
19:45 Berriak.  
20:15 Marrazki bizidunak: Fernando amezketarra.  
20:45 Berriak.  
21:15 Berbaire.  
21:45 Gaurkoak.  
21:47 Aratustek 2007.  
22:15 Harmailatik.  
22:45 Berriak.  
23:15 Hitz bitan.  
23:45 Gaurkoak.  
23:47 Harmailatik.  
00:15 Emisio amaiera.

Eguaztena, 21



> Ur gabeziaren gaineko mahai-ingurua 21:15

Unescok argitaratu eman duen ur gabeziaren gaineko txostenaren harira mahai-ingurua izan da Arrasaten. Han jasotakoak, gaur GOITBn.

13:15 Emisio hasiera.  
13:20 Marrazki bizidunak: Calimero.  
13:45 Gaurkoak.  
13:47 Berbaire.  
14:15 Aratustek 2007.  
14:45 Albisteak.  
15:15 Ur eta lur.  
15:45 Gaurkoak.  
15:47 Hasiberriak.  
16:15 Eltze beroa: Bakailloa.  
16:45 Albisteak.  
17:15 Marrazki bizidunak.  
17:45 Gaurkoak.  
17:47 Harmailatik.  
18:15 Erreportajea.  
18:45 Albisteak.  
19:15 Inauteriak 2007.  
19:45 Berriak.  
20:15 Marrazki bizidunak: Calimero.  
20:45 Berriak.  
21:15 Mahai ingurua: ur krisia.  
21:45 Gaurkoak.  
21:47 Mahai ingurua: ur krisia.  
22:15 Hasiberriak.  
22:45 Berriak.  
23:15 Berbaire.  
23:45 Gaurkoak.  
23:47 Erreportajea.  
00:15 Emisio amaiera.

Eguena, 22



> Gertuko informazioa, gure albistegietan 14:45, 19:45

Debagoieneko gertatutako albiste interesgarrienak aurkezten dizkigute egunero Goiatz Arana eta Larraitx Zeberio (argazkian) kazetariak.

13:15 Emisio hasiera.  
13:20 Marrazki bizidunak: Fernando amezketarra.  
13:45 Gaurkoak.  
13:47 Mahai ingurua: ur krisia.  
14:45 Albiste aurrerapena.  
15:00 Teknopolis.  
15:45 Gaurkoak.  
15:47 Erreportajea.  
16:15 Ikusmira.  
16:45 Albisteak.  
17:15 Marrazki bizidunak.  
17:45 Gaurkoak.  
17:47 Eltze beroa.  
18:15 Hasiberriak.  
18:45 Albisteak.  
19:15 Gatza ta berakatz.  
19:30 MKT.  
19:45 Berriak.  
20:15 Marrazki bizidunak: Fernando amezketarra.  
20:45 Berriak.  
21:15 Berbaire.  
21:45 Gaurkoak.  
21:47 Musikantoi.  
22:15 Didjeridu.  
22:45 Berriak.  
23:15 Erreportajea.  
23:45 Gaurkoak.  
23:47 Ilunpean.  
00:15 Emisio amaiera.

Egubakoitza, 23



> Virginia Imaz, Oihana Elortzarekin 22:15

Oihulari Klown taldeko Virginia Imaz elkarrizketatuko du Oihana Elortza kazetariak. Imazen ibilbidea ezagutzeko aukera izango duzue.

13:15 Emisio hasiera.  
13:20 Marrazki bizidunak: Calimero.  
13:45 Gaurkoak.  
13:47 Berbaire.  
14:15 Musikantoi.  
14:45 Albiste aurrerapena.  
15:15 Eltze beroa.  
15:45 Gaurkoak.  
15:47 Didjeridu.  
16:00 Hitz bitan.  
16:45 Albisteak.  
17:15 Calimero.  
17:45 Gaurkoak.  
17:47 Mahai ingurua: ur krisia.  
18:45 Albisteak.  
19:15 Erreportajea.  
19:45 Berriak.  
20:15 Marrazki bizidunak: Calimero.  
20:45 Berriak.  
21:15 Teknopolis.  
21:45 Gaurkoak.  
21:47 Iragana gogoratuz  
22:15 Ilunpean.  
22:45 Berriak.  
23:15 Berbaire.  
22:45 Gaurkoak.  
23:30 Jazzmina.  
00:15 Emisio amaiera.

arrasate irrata

FM 107.7

> Kirolen tarte, Juanito Arriaranen laguntzarekin 10:30

Gaurko kirolendako tarte Juanito Arriaran izango da gonbidatua, aspaldiko partez. Aste bukerak emandakoa zein zendu berri den Fernando Tapia izango dituzte mintzagai, besteak beste.

Astelehenetik egubakoitzera

10:00-12:00 Igo autobusera!  
Albistegiak  
Prenstaren erreposoa  
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)  
Elkarrizketak  
Zozketak  
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 71 17 31)  
12:05 Izarren ordua: abesti ezagunak  
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.  
14:00 Igo autobusera! (errep.)  
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra.  
17:15 Zorion agurren tarte (errep.)  
Zapatua  
10:00 Asteko gainbegiratu.  
Astean barrena egindako elkarrizketen eta gainontzeko edukien laburpena.  
Domeka  
10:00 Asteko gainbegiratu.

gertutik



Estitxu Fernandez  
Kazetaria

"Emakumeen kirolak tarte handiagoa behar du medioetan"

EDU MENDIBIL > BERGARA

Euskal Telebistako kiroltako aurpegi berria dugu Estitxu Fernandez. Berria esatea gehitxo da agian, lesakarrak ibilbide luzea daramalako: *Bexamela, Sorginen laratza, Bertatik bertara...* Aste bukaeretan kirol berriak eskaintzen ditu orain, *Gaur egun* albistegian zein domeka eguerdiko *Kirolez kirol* saioan.

Aldaketa erabatekoa, ala?

Bai, kiroltarako beste aurkezle baten beharra zeukaten, emakumea nahi zuten, lanik gabe nengoen..., eta nirekin akordatu ziren. Alde horretatik, erronka berria da niretako. Kirolzale arintzat daukat nire burua, eta behar dut kiroltari gehiago jantzi, sarrera gidioak neronek prestatzen ditudalako. Bestalde, pantailan agertzearena uste baino gehiago kostatzen ari zait, pronterarekin lan egitera ohituta ez nagoelako.

Kirolzale amorratua omen zara, eta futbolearen ere aritu zara...

Lasterka beti egin izan dut, eta orain mendian ibiltzen naiz dezentte, eskiatzen, bizikletan zertxobait... Lehen Berako Gure Txokoa taldean jokatzeko nuen; eskuin hegalean aritzen nintzen. Jokalari gustukoena? Guardiola, Laudrup, Bakero...

Euskal futbol taldeendako garai txarrak dira hauek...

Bai, eskerrak Osasuna txukun dabilen... Athletic ez dabil ondo, eta Real, ikaragarri gaizki, mirariaren zain. Edozein modutan, Lotinari entzuten diodan bakoitzean, mailari eustea posible dela sinisten dut. Euskal talde guztiekin atxikimendu handia daukat, baina aita pasaitarra dugu, eta Realarena berezia da.

ETBko kirol eskaintzan zerbait igartzen duzu faltan?

Komunikabide guztien, txikien zein handien, ardura izan beharko litzateke emakumeen kirolari arretari handiagoa eskaintzea. Guztion ardura da berdintasunaren aldeko urratsak ematea.

Inauteriak non ospatuko dituzu?

Lesakan. Jai handiak izaten dira hemen, eta ea azken momentuko moztoreen bat aurkitzen dudan. Astelehenean ere goizean goizetik giro majoa egoten da.

asteko hitzorduak

Ospakizuna



OÑATI  
> 'Eguen unibertsitarixua' ospatuko dute Portu tabernan

Ikasleen eguna dela diote eta hori aintzat hartuta Eguen unibertsitarixua ospatuko dute Portu tabernan. 18:00etan hasiko da ospakizuna eta egongo dira: luntxa, trikitalariak, Atxur bertso eskolako saioa eta DJ emanaldia.

Umeendako ikuskizuna



ARRASATE  
> Betizuko lagunak umeendako ikuskizuna egingo dute Amaia antzokian

*Betizukoak, a ze zirkua!!!* delako ikuskizuna egingo dute. Bihar, martitzena, izango da hori, 17:00etan. Emeu irrikan dago 5. urtebetetzea ospatzeko, baina ospakizuna hankaz gora jarriko duen zerbait gertatuko da.

Erakusketa



ESKORIATZA  
> 'Buztina eta sua' izeneko erakusketa jarriko dute Ibarraundi museoa

2005ean zeramika bilduma erosi zuen Eskoriatzako Udalak. Euskal Herriko etxeetan egunero erabili izan diren piezek osatzen dute bilduma. Halako hainbat piezarekin irekiko dute erakusketa hilaren 23an.

## kuskuxeroa



Arantzazu Ezkibel

## Eta oraindik ez da bukatu! Bihar gehiago!

**E**ta hori zertaz doa?, eta beste hori? A, bai! Ze ona! Batzuetan hain originalak izan gura izaten dugu, zaila izaten dela zertaz mozorro-tuta goazen asmatzea.

Aratuste egun hauetan, denetarik ikusi dugu gureko herrietan. Mozorroak originalak, alaiak, ironikoak eta protestakoak izan dira. Arrasaten, esaterako, A-8 autobideko autoek irabazi zuten *sardina*. **Lagunilla** tabernak ere, izaera aldatu eta **Batzokia** ireki zuen zapatuan. **Ibarretxeren** izenean, hainbat txikito hartuko zituen norbaitek!

### "Aretxabaletan ibili zen *Katxuli* Pantojaren besotik helduta txistua jotzen"

Bergaran, **BTL**Sko neskak aurpegian bi marra beltz margoturik azaldu ziren Ipintza futbol zelaira. Indio itxurerekin, zarauztarrak beldurtu gura izan zituzten.

Aretxabaletan, aldiz, atzo ospatu zuten egun handia. **Marbellako** polizia gurean izango da oraindik, **Katxuli** ren bila. **Pantojaren** besotik ibili zen Aretxabaletako kaleetan, txistua jotzen. Bere taldekideak, aldiz, erromatar mozorrotu ziren. Lehoietara botako ote zituzten Hondarribian egotzitako bost jokalariek?

Kontuak kontu, jaiak oraindik ez dira bukatu. Ni bihar aterako naiz, batek daki zela! Ibarretxek bezala, nik ere txikitoren batera gonbidatuko dut zertaz noan asmatzen duena.

## asteburuko albuma



**Pailazoak.** Jakinekoea da Pirritx eta Porrotx pailazoek sortzen duten ikusmina, eta Bergaran ere bi emanaldi egin dituzte asteburuan. Pilotalekua leporaino bete zen zapatuan *Mari Mototsikus*kinuzarekin gozatzeko. Ume eta heldu, guztira 1.700 lagunetik gora izan dira.




**Zuhaitz azoka.** San Martin plazan 16 postu ipini zituzten zapatuan baso lanetarako tresnak erakutsi eta saltzeko eta zuhaitzak eta euren ezaguarriak erakusteko. Datozen asteetan, ibarreko herrietan zuhaitz eguna egingo dute. Eskola umeek zuhaitzak landatu ohi dituzte egun horietan.



### Futbolarien baba-jana.

Eibar Futbol Taldeko 18 jokalarik bazkaria egin zuten eguenean Espaloian. Entrenamendurik ez zutela aprobetxatuz, futbolariak ohitura izan zuten Elgetako espaloian. Tartean ziren Koldo Erostarbe eta Josu Etxaniz elgetarrak, Jon Urtzelai oñatiarra eta Mikel Etxabe aretxabaletarra. Baba-janak on egin zien itxuraz domekako partidua 2-1 irabazi baitzuten Cultural Leonesa taldearen aurka.



**Txan magoa Kurtzebarrin.** Loramendi elkarteak antolatuta, Txan magoaren ikuskizuna izan zen egubakoitz gauean Kurtzebarrin. Aretoa itxuratu zuten bertara gerturatu ziren lagunek, 60 gutxi gorabehera. Hainbat truku egin zituen eta aho zabalik utzi zituen ikusleak kartekin egindako trukuarekin, esaterako.



### Pilota elkarteko otarra.

Arrasateko AGT Pilota Elkar-teak Gabonetako zozketa egin zuten, baina orduetik zerbaki saridunaren (0297) jabea ez da agertu, eta pilotazaleek Iturbide egoitzako erretiratuei eman diete otarra. AGT Elkarteko lehendakari Aitor Arregik eta Talleres Kanpanzar zozketako babeslearen ordezkari Karlos Ruizek Iturbide egoitzako Gizarte Zerbitzuetako koordinatzaile Olatz Etxaberi eman diote otarra.

## hildakoak

- Javier Acedo Peña.

Bergaran, otsailaren 15ean. 63 urte.

- Mariano Ibarretxe Cubero.

Arrasaten, otsailaren 15ean. 77 urte.

- Eduardo Madinazkoitia Urtzelai.

Oñatin, otsailaren 16an. 89 urte.

- Esperanza Ibarguen Mondragon.

Arrasaten, otsailaren 17an. 78 urte.

## ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen: **943 25 05 01**

**Eskelaren prezioa: 87 euro.**

Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **100 €**.

**Goienkaria: astero, 45.000 irakurle.**




## PARTE HARTU

Kintadak, aste bukaerako ezkontzak, txutxu-mutxuak...

**Tarte hau zure txokoa da, irakurle.**

Ekar ezazu argazkia eta azalpena edo bidali honako helbidera: [astelehena@goiena.com](mailto:astelehena@goiena.com)



**ARETXABALETA**  
**Janire Berasaluze**  
Otsailaren 12an.  
Zorionak eta muxu  
handi bat, etxeko  
guztien partetik.



**ARRASATE**  
**Sergio Serrano**  
Otsailaren 12an, 11  
urte egin zituen.  
Zorionak etxeko  
guztien partetik!



**BERGARA**  
**Aritz Oiarzabal**  
Otsailaren 13an, 9  
urte. Zorionak eta  
muxu handi bat,  
Nora, Aroa eta  
Ekhiren partetik.




**OÑATI**  
**Aimar Etxebeste**  
Otsailaren 13an, 3  
urte. Zorionak etxe-  
koen partetik.  
Patxo asko eta...  
eutsi belarriari!



**ESKORIATZA**  
**Josu Alegria Beitia**  
Otsailaren 13an, 6  
urte egin zituen.  
Zorionak eta muxu  
handi bat, etxeko  
partetik.



**ARRASATE**  
**Leire Zubikarai**  
Otsailaren 14an, urtebetetzea. Zorionak,  
amatxo, eta muxu potolo bat! Garikoitz.



**ESKORIATZA**  
**Manoli Martin**  
Otsailaren 14an,  
urte bat gehiago!  
Zorionak, etxeko  
guztien partetik.



**ARRASATE**  
**Jone Pilligua**  
Otsailaren 15ean, 2  
urtetxo. Zorionak,  
guraso, osaba eta  
amonaren partetik!




**ARRASATE**  
**Unax Errasti**  
Otsailaren 15ean, 2  
urte. Zorionak eta  
muxu handi bat,  
etxeko partetik.



**BERGARA**  
**Nora Casquero**  
Otsailaren 15ean, 10  
urte. Zorionak eta  
urte askotarako,  
Aritz, Aroa eta  
Ekhiren partetik.



**OÑATI**  
**Irati Aranburu**  
Otsailaren 16an, 14  
urte. Zorionak eta  
muxuak, zure lagu-  
nen partetik!



**ESKORIATZA**  
**Julen Arriolabengoa**  
Otsailaren 16an, 6  
urte. Zorionak eta  
muxu handi bat,  
etxeko guztien  
partetik.



**BERGARA**  
**Miriam Martinez**  
Otsailaren 16an, 20  
urte. Zorionak eta  
muxu bat.  
Gurasoak, anai-  
arrebak eta zure  
lagunak.



**ARETXABALETA**  
**Gotzone Guemes**  
Otsailaren 16an.  
Zorionak, morena-  
za! Muxu eta kili-kili  
asko! Lankideak.



**ESKORIATZA**  
**Joseba Gabilondo**  
Otsailaren 16an.  
Katxu-Zorionak! 23  
urte, 23 trago Katxi!  
Buruko gerrigardo  
bakotxandako.



**OÑATI**  
**Maider Murillo**  
Otsailaren 16an, 9  
urte. Ondo pasa  
zure egunean, eta  
muxu handi bat.  
Etxekoak.



**ESKORIATZA**  
**Bogdan Cabeza**  
Otsailaren 16an,  
urtebete. Zorionak  
eta muxu handi  
bat, familia guztia-  
ren partetik.



**ARRASATE**  
**Jose Angel Iturbe**  
Otsailaren 18an.  
Zorionak! Ondo-  
ondo pasau ta  
purotxo bateaz  
ospatu. Lankideak.



**ARRASATE**  
**Amaia Iturbe**  
Otsailaren 19an,  
urtebetetzea.  
Zorionak eta urte  
askotarako! Oñatiko  
lagunak.



**ARRASATE**  
**Nagore Sasiain**  
Otsailaren 19an, 3  
urte. Zorionak,  
etxeko eta  
Arizmendi Sanvi  
txikiko lagun  
partetik!



**ARRASATE**  
**Mikel Albistur**  
Otsailaren 19an,  
urtebetetzea.  
Zorionak, *Albis!*  
Koadrilako  
partetik.



**BERGARA**  
**Xabier Alberdi**  
Otsailaren 19an, 5  
urte. Zorionak eta  
muxu handi-handi  
bat, etxeko guztien  
partetik.



**ARRASATE**  
**Danel Uribealago**  
Otsailaren 20an, 10  
urte. Zorionak!  
Ondo pasa eguna!  
Muxuak, Ziorlako  
partetik.



**BERGARA**  
**Ane Laskurain**  
Otsailaren 20an, 8  
urte. Zorionak eta  
urte askotarako!  
Etxeko partetik,  
bereziki, Markel.



**ARRASATE**  
**Igor Herrarte**  
Otsailaren 21ean,  
urtebetetzea.  
Zorionak, Herrarte!  
Koadrilako  
partetik.



**ARRASATE**  
**Edurne Eloro**  
Otsailaren 21ean.  
Zorionak, gupeto-  
na! Muxu asko!  
Jarraitu horrela,  
*rubia!* Lankideak.



**ARRASATE**  
**Marije Carrillo**  
Zorionak, artista!  
Ondo pasa deizula  
eguna opa dotzu  
zure lana asko  
miresten dauenak.



**ARRASATE**  
**Maite Borque**  
Otsailaren 21ean.  
Zorionak! Ondo  
pasatu eguna, eta  
aprobetxatu atse-  
den hartzeko.



**BERGARA**  
**Eider Moncayola**  
Otsailaren 21an, 9  
urte. Zorionak eta  
muxu handi-handi  
bat, etxeko guztien  
partetik.




**OÑATI**  
**Goretta Abaunz**  
Otsailaren 21ean, 8  
urte. Zorionak,  
Goretta! Unai,  
Xabier, amatxo eta  
aitxoren partetik.



**ARETXABALETA**  
**Nerea Zubillaga**  
Otsailaren 22an.  
Zorionak eta  
muxuak etxeko  
partetik. Ondo  
pasau!



**BERGARA**  
**Julen Osinaga**  
Otsailaren 22an, 5  
urte. Zorionak eta  
muxu handi bat,  
amama, Iker eta  
gurasoen partetik.



**ESKORIATZA**  
**Jonathan Quintas**  
Otsailaren 23an,  
urtebetetzea. 23an,  
23 urte! Aber etor-  
tzen zaren ospatze-  
ko! Koadrilakoak.



**BERGARA**  
**Uxue Agiriano**  
Otsailaren 23an, 6  
urte. Zorionak eta  
muxu handi bat  
etxeko partetik,  
bereziki Maialen.



**ESKORIATZA**  
**Lide Crespo Zuazua**  
Otsailaren 23an, 7  
urte. Zorionak eta  
muxu handi bat,  
etxeko guztien par-  
tetik.

## jaiotakoak



**Iradi Belategi Fernandez**  
Arrasate > 3,130 kg. Otsailaren 12a. Gurasoak: Maite (Arrasate) eta Txomin (Arrasate). Argazkian, aitita Antonio eta amama Tonirekin.



**Keren Mateos Madrid**  
Antzuola > 3,990 kg. Otsailaren 12a. Gurasoak: Marta (Donostia) eta Mikel (Bergara). Argazkian, haurra aitaren besoetan dagoela.



**Aimar Ercilla Nieva**  
Arrasate > 3,340 kg. Otsailaren 13a. Gurasoak: Maite (Basauri) eta Jose Ramon (Arrasate). Argazkian, Aimar amarekin eta Odeirekin ageri da.



**Nora Saiz Guijarro**  
Arrasate > 3,540 kilo. Otsailaren 13an. Gurasoak: Elena (Arrasate) eta Mikel (Arrasate). Argazkian, ume jaioberria aitaren besoetan agertzen da.



**Oier Osa Ansa**  
Oñati > 3,380 kilo. Urtarrilaren 16an. Gurasoak: Gurutze (Andoain) eta Josu (Oñati). Argazkian, Oier jaioberria kuman agertzen da lo.



**Uxue Murguzur Diaz de Monasterioguren**  
Oñati > 3,210 kg. Otsailaren 17a. Gurasoak: Amaia (Oñati) eta Anartz (Oñati). Argazkian, umea amarekin.



**Irati eta Manex Aiesa Ibaibarriaga**  
Arrasate > Iratik 2,380 kg eta Manexek 2,210 kg. Otsailaren 15ean. Gurasoak: Jaione (Arrasate) eta Iban (Arrasate). Argazkian, haurrak kuman.

**BABESLEA**

**IKUSI MAKUSI**

Umeen paradisia

Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

Ane Gabarain > Aktorea

# "Urduri egoten naiz emanaldien aurretik"

OIHANA ELORTZA > OÑATI

**Ama, quiero ser lehendakari** antzez-lana egiten duen lantaldearekin batera etorri da Ane Gabarain Oñatira. Urtarrilaren 23an estreinatu zuten lana Bilbon, eta 10 aldiz baino gehiago antzeztu dute dagoeneko. Aretoak bete egin ziren emanaldi guztietan.

**Zer moduz orain arte egin dituzuen emanaldiekin?**

Oso gustura, egia esan. Aretoak beteta eta jendea barrez ikusi dugu, eta oso seinale ona da hori, pozik gaude.

**Eta ikusleak?**

Ondo, dirudienez, barre egin dutela ikusi dugu eta.

**Nolakoa da Ama, quiero ser lehendakari antzez-lana?**

Politikari buruzko antzez-lana da, baina politika arina da, zuria, ez serioa. Uste dut politikari buruz hitz egiteko bide ona aurkitu duela antzezlanak. Hala ere, esaten dira gauza batzuk, e? Gainera, kantuak eta koreografiak ere baditu; aktoreok abestu ere egiten dugu lan honetan.

**Zer moduzko lana iruditzen zaizu lehendakari izatea?**

(Barre) Okerragoak ere egongo dira akaso, baina probatu egin behar.

**Lan asko egin arren, antzezlan edo telesail bakarrarekin erlazioatzen dituzte askok aktoreak. Amorrua ematen dizu?**

Ez. Normala ere bada. Batez ere, telebistan lana egiten duenari pasatzen zaio hori.

**Bi eta Bat-eko Jaione zara zu oraindik?**

TEST-A

**Herria:** Donostia, baina Pasai San Pedro ere asko maite dut. **Adina:** 43 urte. **Ikasketak:** UBI eta antzerki eskolakoak. **Zaletasunak:** Zinema, kirola egitea eta paseatzera joatea. **Ikusi duzun azken filma:** *El Laberinto del Fauno*. Gustatu zait, originala da. **Askok gustatzen zaituzun kolorea:** Laranja. **Zerk ematen dizu amorrua?:** Gauza askok, baina, adibidez, autobus geltokira iristear nagoela autobusa badoala ikusteak.

Batuzendako bai, agian. 15 urte inguru ditu telesail horrek; enblematikoa izan zen, ondo zainduta zegoen, eta jendea oraindik gogoratu egiten da. Ilusioa egiten dit jendeak ni Joxelontxorekin eta bere lagunekin lotzeak.

**Euskaraz eta espainolez ikusi zaitugu lanean. Ingelese ere bai, laster?**

Ikasten ari naiz, eta nork daki. Badaezpada, prest egongo naiz.

**Urduri jartzen zara oraindik antzeztzen hasi aurretik?**

Estreinaldietan, gehiago, baina emanaldi guztietan sentitzen ditut estomagoan kili-kiliak ordua baino hamar bat minutu lehenagotik. Baina hori ona da.

**Baduzu maniarik?**

Ez naiz superstiziosoa, baina, antzez-lana hasi aurretik, gustatzen zait baso erdi ardo beltz edo ur edatea, eta bukatzen dugunean, garagardoa.

**Kaka zaharra!**


Eskerrik asko. Aktoreok badugu hori esateko ohitura.



AKTOREA Antzez-lana egin du asteburuan Oñatin Ane Gabarainek. JOSETXO ARANTZABAL

[www.goiena.net](http://www.goiena.net)

Leku batzuetan, Aratusteak zapatuan ospatu nahi dituzte. Ondo iruditzen zaizu?



**biharamuna**

Iñigo Biain

## Zapatero eta izen ezkutuat


Izena duenak izana omen du, euskal atso-titz zaharrak dioenez, eta azkenaldian horren frogak aurkitzen ditut etengabe, bilatu ere egin gabe. Bereziki harrigarria egin zait azken aurkikuntza. Izan ere, nork esan behar zigun Espainiako gobernu buruak bere abizenean zeramala idatzita patua. Ez duzuela sinesten? Ba aztertu dezagun. **Zapatero** da presidentearen abizena. Banatu dezagun hiru zatitan: **ZAP-ATE-ERO**. Orain zati bakoitza atzetik aurrera idatz dezagun: **PAZ-ETA-ORE**.

Lehen bi hitzek ez dute azalpen beharrik bake prozesua bizitzea



tokatu zaigunontzat, baina hirugarrenarekin bai sortu zitzaidan kezka. Babeleko hainbat hiztegi hausnartu ondoren, **Bostak Bat** lantaldearen **3000** hiztegiak eman zidan erantzuna. Bertan irakurri nuenez, **ore** gaizki egositako ogi masari deitzen omen zaio. Horra hor bada, gure ekuazio matematiko-politiko-etimologiko harrigarriaren erantzuna: **Zapatero=Pakea+ ETA+Gaizki egositako euskal masa**. Zapatero beharrezan, beraz, **Txapatero** bataiatu beharko genuke: itxura eskaseko txapatak egiten dituen okina! Eta hurrengo atalean... "harri eta krutz" gelditzearen esanahia.

**eguraldia**



MINIMOA  
**+07**

MAXIMOA  
**+13**

Goizean oraindik hodeiak izango ditugu, eta euria egin lezake. Arratsaldean egoera hobea izango da eta oskarbiak izango dira.

[www.euskalmet.euskadi.net](http://www.euskalmet.euskadi.net)

Nor zara zu?

**ARATUSTEAK 2007**

Saio berezia  
Martitzenean, otsailaren 20an, 21:45ean

**Goitb**  
Goiena Telebista

**Ikustekoa!**

Babeslea:

**Baster-alde**  
jatetxea

